



# TERRORISMOA ESPAINIAN

ESPAINIAREN HISTORiarAKO  
UNITATE DIDAKTIKOA

**BATXILERGOKO 2. MAILA**

IRAKASLEENTZAKO  
LIBURUXKA

**"TERRORISMOAREN OROIMENA  
ETA PREBENTZIOA" HEZKUNTZA-  
PROIEKTUA.  
2. UNITATE DIDAKTIKOA**

---

**ARGITARATZAILEA**

Terrorismoaren Biktimen Aldeko  
Zuzendaritza Nagusia. Barne Ministerioa

Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako  
Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza eta  
Lanbide Heziketako Ministerioa

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako  
Zentroa

Terrorismoaren Biktimen Fundazioa

**TESTUAK**

Jesús Prieto Mendaza

**DISEINUA**

Dr. Drumen

**ARGAZKIAK**

EFE Agentzia

Bilboko Udal Artxiboa. La Gaceta del  
Norteren Funtsa

El Correo

Fidel Raso/Diario 16

Guardia Zibila

Bizkaiko Foru Hemeroteka

Jorge Nagore

La Voz de Galicia

Luis Alberto García eta Santos Cirilo/  
El País

Barne Ministerioaren NIPOa: 126-20-003-X

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako  
Ministerioaren NIPOa: 847-20-076-3





# AURKIBIDEA

Unitate didaktiko hau tresna oso bat bezala aurkezten dugu, bai eta irakaslearen esku jarri ere, gelan zuzenean landu dezan. Eduki guztia edukiko du eskura, baita aplikazio didaktikoa ere, testu-liburu batean sartua izateko prestatuko litzatekeen bezala. Lehenik eta behin, pentsatua izan den saio bakoitzean egin beharreko lana barne hartzen du. Amaieran proposamen didaktiko osoa dago, gaiaren programazioaren barruan sartu ahal izateko.

**04**

**1. Saioa**

Sarrera

Zer da terrorismoa?

Terrorismoaren indarkeria eta ondorio sozialak

1.1 jarduera.- Estortsio ekonomikoa, indarkeria modu bat

**10**

**2. Saioa**

Frankoren diktadura justifikazio bezala

2.1 jarduera.- Udaltzain bat. Lau seme-alabaren aita bat

2.2 jarduera.- Sarraskia kafetegian

**16**

**3. Saioa**

Trantsizioa

3.1 jarduera.- Nik lekualdaketa nahi nuen. Han hil egingo naute

3.2 jarduera.- Tiroak kanodromoan

3.3 jarduera.- Alonsotegiko esne-saltzailea

**26**

**4. Saioa**

Sendotze demokratikoa

4.1 jarduera.- San Fernando, Coslada, Santa Eugenia, El Pozo...

4.2 jarduera.- Sustrai erlijiosoa duen fanatismoa

**38**

**Gehiago jakiteko**

**42**

**Proposamen didaktikoa**

01.

SAIOA



1. irudia. Esku zurien sinboloaren ondoan bake eske egindako pintada, biktimen errugabetasuna adierazten duena, Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondotik 1997ko uztailean. Argazkia: Fidel Raso/Diario 16.

LEHEN SAIO HONETAN, ETA GAIA BERE TESTUINGURUAN JARTZEKO, TERRORISMOARI BURUZKO —GAUR EGUNGO FENOMENO GISA— SARRERA BAT GEHITU DUGU. JARRAIAN, ESPAINIAN JARDUN DUTEN TALDE TERRORISTAK BEREN PRINTZIPIO IDEOLOGIKOEN ARABERA SAILKATU DITUGU, ETA, AZKENIK, HAIEN INDARKERIAREN ONDORIO IZUGARRIAK, PERTSONALAK ZEIN SOZIALAK, NABARMENDU DITUGU. LEHEN MODULU HONETAN DIAPOSITIBAK PROIEKTATUTAKO DIRA EDO GAIARI DAGOZKION FOTOKOPIAK EMANGO. HONAKO HAU PROPOSATZEN DIEGU IKASLEEI: BEREN KOADERNOETAN TERRORISMOAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK KOPIATZEA ETA NABARMENDUTA DAUDEN HITZ ETA ESALDIAK BEREN HITZEKIN DEFINITZEA. HALABER, DAUDEN EDO EGON DIREN TALDE TERRORISTEN TIPOLOGIAK ETA HAIEN EZAUGARRI NAGUSIAK IDATZI BEHARKO DITUZTE. SARRERAN AIPATZEN DIREN INDARKERIAREN ONDORIOAK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK DIRA HALABER. AMAIERAKO JARDUERA BEZALA, ESTORTSIO EKONOMIKOARI —ARMA TERRORISTA GISA— BURUZKO IKERKETA LAN BAT PROPOSATUKO DUGU.

## SARRERA

Terrorismoak modu tragikoan markatu du Espainiaren arestiko historia XX. mendeko hirurogeiko urteetatik. Unitate didaktiko honetan fenomenoaren zertan datzan aztertuko dugu lehenengo eta behin. Ondoren, haren garapenean sartuko gara, izan dituen hiru fase ezberdinetan zehar:

Francoren diktadura

Demokraziarako trantsizioa

Epealdi demokratikoa

Terrorismoaren fenomenoaren aztertzean, beharrezkoa da haren ekintzen biktimengan arreta guzua jartzea. Modu horretan bakarrik lortuko dugu indarkeria ez-legitimo bat erabiltzean burutu den bidegabekeria agerian jartzea haiengandik abiatuta, haiekin, haien ondoan; giza eskubide oinarrikoenaren urraketaren froga nabariena baitira: bizitzarako eskubidea.

## ZER DA TERRORISMOA?

Beste fenomeno sozial konplexu batzuekin gertatzen den bezala, terrorismoaren hainbat definizio daude. Adituek ez dute adostasunik lortu terrorismoa zer den zehazteko orduan, baina ia kasu guztietan proiektu politiko jakin bat indarrez ezartzeko tresna baten aurrean gaudela azpimarratzen dute; hortaz, arerioei eta gizarteari berari beldurra eragitea da helburua. Hori esanda, pasa gaitezen orain terrorismoaren fenomenoak modu orokorrean ezaugarritzen duten honako osagai hauek laburbiltzera:

### INDARKERIA KLANDESTINOA

Terrorismoak modu sekretu edo ezkutukoan jarduten du justiziaren ekintza saihesteko. Klandestinitateak, berriz, taldearen isolamendu eta erradikaltasun handiagoa eragiten du.

### IZU GIROA ERAGITEN DU

Hitzaren etimologiak adierazten du terrorismoa "terror" hitzetik (izutik) datorrela, eta horixe da, hain zuzen ere, baliabide honen bidez sorrarazi nahi dena: aurkariaren artean ikara bizia.

### HELBURU POLITIKOAK INPOSATZEA BILATZEN DU


Terrorismoaren atzetik botere proiektu bat dago, indarraren erabileraren bidez menderatu nahi den erakunde edo organizazio baten aurka zuzendua.

### PROPAGANDA- ERAGINA

Talde terroristek beren atentatuek eragiten duten inpaktua baliatzen dute beren eskakizunak zabaltzeko.

Terrorismoaren fenomenoak arazo globala bada ere, maila ezberdinean eta garapen historiko ezberdin batekin eragin izan die gure inguruko herrialdeei.

2. irudia. Bilboko udaltzain bat ETaren bonba batek eztanda egin berri duen kalea sokaz inguratzen. Argazkia: El Correo.



Espainian jardun izan duten erakunde terrorista motak:

### NAZIONALISTA ERRADIKALAK ETA INDEPENDENTISTAK

Joera horretakoa da banda terrorista odoltsu eta urtetsuena. ETA, alegia, Euskadi Ta Askatasuna. Erakunde honen hainbat adar 853 pertsonaren heriotzaren arduradunak dira 1968a eta 2010a bitartean, Euskal Herriaren independentzia helburu nagusitzat zuen kanpaina bortitz baten barruan. Gainera, Katalunian EPOCAko (hiru biktima mortal) eta *Terra Lliure*ko kideek (bat), Galizian *Exército Guerrilheiro do Povo Galego Ceive*-koek (bi) eta Kanarietan MPAIAC-ekoek (bat) ETAREN mailara iritsi nahi izan zuten baita ere.

### JIHADISTAK

*Shariaren*, lege islamikoaren, interpretazio dogmatiko, ortodoxo eta minoritario baten pean dagoen kalifa-herri bat ezartzea dute helburu. Espainian joera honen lehen atentatua 1985ean gertatu zen, El Descanso jatetxean. Zenbait zelula jihadistek gure historiako sarraskirik handiena eragin zuten: Madrilén 2004ko martxoaren 11n izandako erasoak, non 193 pertsona hil eta 1.761 zaurituta gertatu baitziren. Duela gutxiagokoak dira Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuak, 2017ko abuztuaren 17an Estatu Islamikoak egindakoak, 16 pertsona hildako eta ehunetik gora zauritutako utzi zutenak.

### EZKER MUTURRA

Kategoria honen adierazle nagusiak GRAPO-koak izan ziren, Grupos Revolucionarios Antifascistas Primero de Octubre delakoak. 1975ean sortuak, jardunean aritu ziren XXI. mendeko lehen hamarkadara arte. Beren ideologia maoistan bermatuta, errepublika sozialista bat ezarri nahi zuten indarraren bidez Espainian. 80 bat hilketaren erantzule dira.

### GAL

GALen (Grupos Antiterroristas de Liberación) kasua, estatu demokratiko batean ezin zurituzkoa, ez dator bat *ultra* ideologiarekin. Antiterrorismo mota bidegabeko eta parapolizial bat izan zen, ustez borrokatzen zituzten haien (ETA) metodo terrorista berak erabili zituena. 27 pertsona erail zituzten 1983 eta 1987 artean.

### ULTRAESKUINA

Mota honetako terrorismoa hainbat erakundetan zatikatua egon zen: BVE (Batallón Vasco Español), Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) edo GAE, Grupos Armados Españoles. Haien helburu nagusia Francorena bezalako diktadura batera bueltatzea zen, baita ETARI erantzutea ere, kontrako zeinuko terrorismo batekin. 60 bat hilketa leporatzen zaizkie.

## TERRORISMOAREN INDARKERIA ETA ONDORIO SOZIALAK

Juan Avilés-ek dioenez, Espainian, hirurogeiko hamarkadan zehar, terrorismo nazionalistaren, marxista-leninistaren eta ultraeskuindarraren bat-egite bat gertatu zen: "ETA 1968an hasi zen hiltzen, eta hiltzen jarraitu zuen 2011ra arte; terrorismo independentista katalanak 1971n hil zuen lehen aldiz, eta zoritxarrezko ospea lortu zuen 1977an José María Bultóren hilketarekin eta 1978an Joaquín Viola eta haren emazte Montserrat Tarragonaren hilketekin, ETArek hilgarritasun mailatik urruti, oso urruti geratu arren; FRAPek, Frente Revolucionario Antifascista y Patriota delakoak, atentatu hilgarri kanpaina bat egin zuen 1975eko udan; GRAPOkoek, Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre-koek, 1975an hasi zuten beren jarduera terrorista, eta azken biktima mortala 2006an eragin zuten; eta ultraeskuinaren lehen biktimak Montejurran hil ziren 1976ko maiatzean"<sup>1</sup>.

Terrorismo nazionala alde batera utzita, laurogeiko urteetan joera jihadistako indarkeria agertu zen, hurrengo hamarkadetan herrialde asko astinduko zituena, horien artean Espainia, eta berrehun biktima baino gehiago eragingo zituena gure herrikideen artean. Era honetan, jada XXI. mendean, nazioarteko komunitatearen segurtasun arazo nagusienetako bat bihurtu zen. Aipatutako indarkeria guztietatik, ETAreka kasu berezia da bere iraupena, bere hilgarritasuna, Espainian hamarkadatan zehar eragin zuen inpaktu politikoa eta hori guztia ahalbidetu zuen oinarri soziala dela eta. *La voluntad del gudari* liburuan, egileak, Gaizka Fernández Soldevillak, bere buruari honako hau galdetzen dio, guri galdetzen digu: "Noiz eta non jaio zen fanatismoa? Zeintzuk ziren gorrotoaren sustraiak? Nola eta zergatik agertu zen ETA? Bat-batean jaio al zen? Zer erantzuten zion ETAk indarkeriaren alde egindako apustuak? Eta zergatik ez zen gertatu gauza bera Espainiako beste hainbat lekutan?"<sup>2</sup>. Galdera horiek guztiak erabakigarriak dira.

1968ko ekainaren 7an, ETako kide zen Txabi Echebarrietak José Antonio Pardines erail zuenean, hiltzea aukeratu zuen. Ez zuen bere burua horretara behartua ikusi, nahiz euskal nazionalismo erradikalaren iruditeriak era horretan eraiki duen Adunako herrian (Gipuzkoa) jazotako gertaera hura.

José Antonio Pardinesen erailketa 1968an, diktadura ezin zurituzko baten testuinguruan, borondatezko ekintza bat izan zen, eta historia odoltsu baten hasiera markatu zuen euskal gizartearentzat eta Espainiako gizartearen osotasunarentzat, denboran 2011raino luzatuko zena.

Heriotzaz gain, terrorismoko biktimek eta beren senideek arazo psikologikoak eta uzkuratzen soziala nozitu badituzte ere, egia da halaber terrorearen azpikultura baten pean bizi izan den gizartearen zauri sakonak eragin direla, erabat osatzeko denbora eta bitartekotza beharko dutenak. Eta, agian, etorkizunera begira desiragarria den begiradaz, balore zibiko demokratiko gutxieneko batzuk berreskuratzeko baldintza beharrezkotako bat, eskagarrietako bat, burutako jardunbide ankerraren gaitzespen moral eta politikoa izango da. Krimen bat krimen bat da. Gizaki bati bizitza ukatzeak dakarren krudeltasunak hala itxuratzen du, baita askatasun faltako testuinguru jakin batean egiten bada ere, 1968ko kasuan gertatu bezala. Guardia zibil gaztearen heriotza ekidin zitekeen, baina hori ez ezik, Echebarrieta herriaren heroi gisa aurkeztua izan zen ere, iraultzaren martiri gisa. Eta Hannah Arendtek esan zuen bezala: "iruzurra, hau da, nahita egindako faltsukeria, eta gezur hutsa helburu politikoak lortzeko bitartekari zilegi gisa, idatzitako historiaren sorreratik izan ditugu lagun. Sarritan, gezurrak errealitatea baino askoz sinesgarriagoak dira arrazoimenarentzat, erakargarriagoak, zeren eta gezurra esaten duenak bere entzuleek entzun nahi dutena edo entzutea espero dutena alde aurretik ezagutzeko abantaila handia dauka".

Osagarri gisa, eta gaiari sakondu nahi dutenentzat, honako liburu hau irakurtzea gomendatzen dizuegu: Fernández Soldevilla, G. (2016): *La voluntad del gudari*, Tecnos, Madril.

<sup>1</sup> Avilés, 2018: 24-25.

<sup>2</sup> Fernández Soldevilla, 2016: 20.



## 1.1 JARDUERA

### ESTORTSIO EKONOMIKOA, INDARKERIA MODU BAT

ETAk eragindako indarkeria moduetako bat estortsio ekonomikoa izan da. Enpresariei, hala Euskal Herrikoei nola Nafarroakoei eta Espainiako gainerakoei, egindako diru eskaera handiez hitz egin dezakegu, baina baita dendari txikiei, profesional liberalei, kirolariei, autonomoei, ostalariei eta abar luze bati eskatutako kopuru txikiez ere (mikroestortsioa deritzona). Gutun bat heltzen zenean, enpresariari diru kopuru jakin bat eskatuz eta hura mehatxatuz, laborri garai bat hasten zen enpresariarentzat, eta, jakitera emanez gero, baita haren familiarentzat eta lagunentzat ere. Zenbait ikerketek agerian uzten dutenez, estortsio mehatxua jasotzen zuten enpresari gehienek isilpean pairatzen zuten bortxa eta mehatxua. Gizon bat bere fabrika edo tailerrean hil edo bahitzen bazuten, horrek ondorio suntsitzailea zuen, eta, horren aurrean, enpresaburu askok ETA erakundeari ordaintzea erabaki zuten, beren eta beren familiaren segurtasuna erosteak xantaia egiteko edo beste batzuk hiltzeko balio zuela jakin arren, eta horregatik sufritu arren. Diru iturriak lortzeko arma eraginkorrenak bahiketa eta hilketa izan arren, talde terroristak gutun mehatxagarriak bidali zituen (batzuetan gurasoen, seme-alaben eta ahaideen datu zehatzekin), sabotaje ekintzak egin zituen zenbait enpresatan, lehergailuak ezandarazi, etxeetan eta lantokietan pintadak egin, manifestazioak antolatu, kalean zein leku pribatuetan irainak bota, plazetan kartelak jarri eta abar.

ETAk bakarrik ez, beste talde terrorista batzuek ere burutu zituzten bahiketak, GRAPOk kasu. ETAk bahitutako hiru enpresari (Angel Berazadi, Javier de Ybarra eta Francisco Arín) eta GRAPOk bahitutako beste bat (Publio Cerdón) hil egin zituzten bahitzaileek. Honako hauek izan ziren iraupen luzeena izan zuten bahiketak: José María Aldayarena, 341 egun igaro zituena preso, Emiliano Revillarena, 244 egunez atxikia, eta Cosme Delclaux-ena, 232 egunez askatasun gabeko egoeran igaro zituena. Guztiek baldintza gogorrak nozitu zituzten bahiketa garaian. Hala ere, gatibualdi luzeena José Antonio Ortega Lara presondegietako funtzionarioarena izan zen, 532 egun igaro baitzituen lur azpiko zulo batean itxita eta baldintza penagarrietan. ETAk egindako bahiketa horrek ez zuen motibazio ekonomikorik, Estatuari txantaje politikoa planteatzea baitzuen helburu, Miguel Ángel Blancorekin gertatu bezala. Guardia Zibilak 1997ko uztailaren 1an askatu zuen Ortega Lara. Haatik, terroristek Miguel Ángel Blanco erail zuten.



3. irudia. ETAren gutun bat 100 milioi pezeta eskatzen José Luis Arrasate enpresariaren erreskate gisa, 1976ko urtarrila. Argazkia: Bilboko Udal Arbiboa (BUA), *La Gaceta del Norteren Funtsa*.

Gai honetan sakontzeko helburuarekin, honako irakurketa hau gomendatzen dizuegu: Ugarte, J. (koord.) (2018): *La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*, La Esfera de los Libros, Madril; eta Sáez de la Fuente, I. et al. (2017): *Misivas del terror. Análisis ético político de la extorsión de ETA contra el mundo empresarial*, Marcial Pons, Madril.

### IRADOKITAKO JARDUERA

ETA erakundearen xantaia jasan duen enpresa munduari lotutako pertsona bati buruz irakurri duzu?

Zirrara berezia eragin dizun kasu bati buruzko informazioa bila dezakezu (zeure kabuz edo taldean, lan kooperatiboaren bidez) txosten xume bat egiteko, paperean zein formatu digitalean, eta gelan jarri edo proiektatuko dugu.

Azkenik, ateratako datu, ekarpen eta argibideekin amaierako ondorioak aterako ditugu gelan.

02.

SAIOA



BEHIN TERRORISMOA ZER DEN DEFINITU ETA BERE ALDAERA EZBERDINAK EZAGUTU ONDOREN, BIGARREN SAIO HONETAN ESPAINIAN FENOMENO TERRORISTAK IZAN DUEN BILAKAERA KRONOLOGIKOARI EGIN DIEZAIKEGU, FRANCOREN DIKTADURAREN GARAIAN ZENTRATUZ. SARRERA HISTORIKO LABUR BAT EGIN BEHARKO DA, FRANKISMOARI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKOAREN EDUKIAK LABURBILDUKO DITUENA, BALDIN ETA HORI JADA EMAN BADA. UNE HISTORIKO HONETAN KOKATU BEHAR DA TERRORISMOAREN SORRERA FENOMENO MODERNO GISA, NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO DESKOLONIZAZIOKO ETA MUTURREKO IDEOLOGIA BORTITZEN ALDARRIKAPENEN TESTUINGURU BATEAN. TESTUINGURU HORRETAN MINORITARIOAK ZIREN ZENBAIT TALDEK INDARKERIARA JO ZUTEN FRANKISMOARI AURRE EGITEKO, ETA HORIEN ARTEAN ETA ZEGOEN. DIKTADURAREN ERREPRESIOAK, BURGOSEKO GERRA KONTSEILUAREKIN (1970) GERTATU BEZALA, ERAKUNDE TERRORISTAN MILITANTE GEHIAGO SARTZEA BULTZATU ZUEN.

### FRANCOREN DIKTADURA JUSTIFIKAZIO BEZALA

Frankismoa 1939tik 1975era arte luzatu zen; hau da, gerra zibilaren amaieratik Francisco Franco diktadorearen heriotzaraino. Askatasun faltaren egoerak espainiar guztiei eragiten zien, batez ere diktadurari atxikiak ez zirenean. Espainiar nazionalismo porrokatua, "Caudillo"arekiko (Francorekiko) gurtza, alderdi bakarraren erregimena (Movimiento Nacional delakoa) eta nazionalkatolizismoa ziren, beste zenbait alderdiren artean, diktaduraren ezaugarri nagusiak.

1945ean Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, Europak oparotasun epealdi bat ezagutu zuen. Espainiako, Portugaleko eta Greziako diktadurak salbuespen bat ziren mendebaldeko testuinguruan, non demokraziak finkatu egin baitziren.

1960ko eta 1970eko hamarkadetan muturreko ideologia batzuek indarkeriaren erabilera defendatu zuten politikan beren helburuak lortzeko. Hala gertatu zen bai herrialde demokratikoetan bai diktadura bizi zuten beste zenbaitetan ere. Lehenengoan artean, adibidez Italian Brigada Gorriak bezalako ultraezkerreko organizazio terroristak sortu ziren, baita eskuin muturrekoak ere, Ordena Berria izenekoa kasu, diktadura faxista berrezarri nahi zuena. Erresuma Batuan IRA, Irlandako Errepublikako Gudarostea, berragertu zen, eta hirurogeiko urteen amaieran kanpaina terrorista bat abiarazi zuen britainiarrak Ipar Irlandatik kanporatzeko. IRA da Europan biktima mortal gehien eragin dituen erakunde terrorista: 1.700dik gora. Kontrako aldean, Ipar Irlanda Erresuma Batuaren barruan jarraitzearen alde zirenen erakunde terroristen artean UVF, Ulsterreko Boluntarioen Indarra, zegoen, 500 bat pertsona hil zituen 1966tik 1990eko hamarkadara arte.

Francoren diktaduran zehar hainbat erakunde terrorista sortu ziren. Espainian terrorismoaren lehen biktima mortala Begoña Urroz haurra izan zen, 1960an. DRILEK, Directorio Revolucionario



4. irudia. Krimenaren agertokia José Antonio Pardinesen hilketaren ondoren. Lurrean Trafikoko guardia zibilaren motorra iraulta agertzen da. Argazkia: Guardia Zibila.

Ibérico de Liberaciónek, Donostiako tren-geltoki batean jarritako bomba baten leherketak harrapatu zuen. Gainera, Franco hil baino lehenago, FRAPa eta GRAPOak, inspirazio ultraezkerrekoak, eta ETA, euskal nazionalismo erradikaleko ideologia zuena, jaio ziren. PNVrekin hautsi eta gero, 1958an sortu zen ETA. Lehen ETA hura Algeria edo Vietnam bezalako herrialdeen mugimendu antikolonialistetan oinarritu zen. Haren lehen biktima mortala José Antonio Pardines Arcay trafikoko guardia zibil gaztea izan zen, 1968an. Era honetan, ETAk indarkeria kiribil bati hasiera eman nahi izan zion, ekintza-ondorio deiturikoa, honako oinarri hau zuena: lehenik eta behin, atentatuak egin; bigarrenik, diktaduraren erantzun oldarkorra eragin; eta, hirugarrenik, biztanleria euskaldun eta nafarraren artean bere kausarekiko begikotasun korronte bat sortu. 1973ko abenduan ETAk Gobernuko presidente frankista, Luis Carrero Blanco almirantea, erail zuen. Gutxiak aurreikusitako zuten orduan terrorismoak diktadura ostean jarraituko zuela, hartan baino indar handiagoarekin jarraitu ere.

Zenbaitetan esan izan denaren aurka, terrorismoa agertzea ez zen izan Espainian diktadura bat zegoela-eta eratorritako ondorio saihestezin bat. Dagoeneko ikusi dugu terrorismoa data horietan beretan sortu zela, baita gure inguruko zenbait herrialde demokratikotan ere. Gainera, oposizio antifrankistaren alderdi eta sindikatuen gehiengo handiak ez zuten hilketara jo diktaduraren aurka egiteko, tresna baketsuetara baizik, hala nola grebak, propaganda edo manifestazioak. Terrorismoa gutxiengo baten tresna odoltsua izan zen, ondorio konponezinak eragin zituen. ETArekin kasuan, 43 pertsona hil zituen 1968 eta 1975 urteen artean. Jada Franco hil eta gero eragin zuen ETAk bere krimen mortalaren %95a.

Hortaz, diktaduraren aurka egindako borrokan bere historia bortitza legitimatzeko ETAk egin duen ahalegina zalantzarik gabe faltsua izan da. Paradoxikoki, indarkeriazko metodoen aldeko aukera horren ondorioz, ustezko aurkarizatutako erregimenaren antzekoak bihurtu ziren terroristak, eta, era horretan, pentsamendu totalitario eta fanatikoaren morroi bihurtu ziren. Florencio Domínguezek idatzi bezala, bere ideia politikoak defendatzeko beste inolako baliabiderik ez duen horrentzat, terrorismoaren erabilera ez da azken aukera, nahiz eta ETAk Francoren diktadura ekin indarkeriaren bideari. Hori hala izatera, frankismoaren aurkako talde demokratiko guztiek armak hartuko zituzketen, eta ez zuten horrela egin. Terrorismoak gizatasuna kentzen du, biktimak, mina, beldurra, haustura soziala eragiten ditu, eta, horregatik, hain zuzen ere, terrorismoa biktima guztiak dira errugabe, legez-kontrako indarkeria erabili zutelako haien aurka: ez zuten merezi izan eragin zieten mina.

Frankismoaren azken urteetan eta demokraziaren lehenengoetan Espainia osoa aldarrikapen politiko eta sozialez borroka zegoen. Euskal Herria ez zen salbuespen; are gehiago, ETArekin existentziarekin giroa muturreko aztoramenekoa zen. Diktaduraren errepresioak, 1975eko iraileko azken bost fusilamenduak barne, Euskal Herriaren aldeko borrokalarien irudia esku-eskura utzi zion ETArekin, eta irudi hori oso sakon sartu zen garaiko ehun sozialean. Juan Avilés kontatzen duen bezala: "hirurogeiko urteen amaieran eta hirurogeita hamarrekoen hasieran jende kopuru adierazgarri bat, gehienak gazteak, elkarrengandik Euskadi, Ipar Irlanda, Italia, Alemania, Argentina, Uruguai, AEB, Japonia edo Palestina bezain urruti zeuden lekuetan bizi zena, ondorio jakin batetara heldu zen: iraultza soziala bultzatzeko edo haren aurka egiteko, beren helburu nazionalak sustatzeko, edo beste batzuek lor zituzten eragozteko, bide eraginkorrena indarkeria zen"<sup>3</sup>.

<sup>3</sup> Avilés, 2018: 21.

## 2.1 JARDUERA

### UDALTZAIN BAT, LAU SEME-ALABAREN AITA BAT

1972ko abuztuaren 29a zen. Egun hartan ETA talde terroristak Eloy García Cambra udaltzaina erail zuen Galdakaon. *Vidas Rotas* liburuan kontatzen denez, aurreko gauean, astelehenak 28, susmoak piztu zizkion Seat 600 bat topatu zuen Eloyk. Hurrengo goizean, susmagarri bat autora hurbiltzen zela ikusita, harengana gerturatu, eta autoaren jabea ote zen galdetu zion. Eloyk ez zekien aipatu norbanakoa etakidea zenik, eta, beraz, taxi batean joaten utzi zion, baina bere lankideari gertaeraren berri eman zion. Orduan, Guardia Zibilaren bikote bat sartu zen tartean, eta susmagarriak alde egin zuen taxiaren atzetik joan ziren. Era horretan, ibilgailua gerarazi, eta susmagarriekin Galdakaoko kuartelera abiatu ziren. Land Roverretik jaistean, susmagarrietako batek atzemaileetako bati bultzakada bat eman, eta tiro egin zion Eloyri. Bi bala jaso zituen, bata garondoan eta bestea bizkarrean. Tiroketa bizi bati ekin arren, non guardia zibil bat zauritua gertatu baitzen, erasotzaileek ihes egitea lortu zuten. Gertaeren lekuan terroristek diru-zorro bat utzi zuten abandonatuta, eta horri esker identifikatu ahal izan zuten haietako bat, eta, ondoren, komando osoa.

Eloy García Cambrak 44 urte zituen, eta Nafarroako San Martin de Unx herrikoa zen. Galdakaoko auzo batean bizi zen, eta oso gizon ezaguna zen bizilagunen artean, baita estimatua ere. Ezkonduta zegoen, eta lau seme-alaba zituen.

Honako liburu honen irakurketa gomendatzen dugu: Alonso, R., Domínguez, F. eta García Rey, M. (2010): *Vidas rotas*, Espasa, Madril. Pdf-n eskuragarri: [http://fundacionvt.org/wp-content/uploads/pdfs/Vidas\\_Rotas.pdf](http://fundacionvt.org/wp-content/uploads/pdfs/Vidas_Rotas.pdf)

### IRADOKITAKO JARDUERA

Kontakizun hau banaka irakurri ondoren, bost ikaslelik gorakoak izango ez diren lan-taldeetan jarrita eta iritziak trukatu ondoren erantzunak adostuz beti, honako galdera hauek erantzungo dira:



5. irudia. 1972ko abuztuak 30eko *La Gaceta del Norte*ren lehen orrialdea, Eloy García Cambraren hilketaren albistearekin. Iturria: Bizkaiko Foru Hemeroteka.

ETari lotutako sektore ideologikoek indarkeria hori justifikatzen dute garaiko testuinguru ez-demokrati-koagatik. Zuen ustez justifikatu al daiteke udaltzain honen hilketa diktadura betean burutu zelako? Argudiatu zuen erantzuna.

Ezagutzen al duzue *erresilientzia* kontzeptua? Pertsona erresilientea emozioaz jabetzen da, egoera horren gogorren aurrean pizten den emozio zaparrada sentitzeko aukera ematen dio bere buruari, eta emozio horiek bere gorputzean agerian jartzen duten adierazpenaren jakitun da ere, jarrera horretatik bere bitzta berregiteko.

Zuen ustez, horrelako gertaera baten ondotik erraza egingo litzaizuke zuen bitzta berregitea, bai familiaren ikuspegitik bai sozialki? Zein izango litzateke zuen berme nagusia? Eta eragozpen handiena?

## 2.2 Jarduera

### SARRASKIA KAFETEGIAN

Hiperkorreko (1987) sarraskiraino, Rolando kafetegian burututakoa izan zen biktima mortal kopuru handiena eragin zituena ETA talde terroristaren atentatuen artean. Bomba indartsu batek Madrilgo Correo kaleko ostalaritza-establezimendua suntsitu zuen. Puerta del Soletik metro gutxira zegoena. Etakideek lokal hori aukeratu zuten eskuarki polizia asko joaten zirelako, Seguritasuneko Zuzendaritza Nagusiarekin zuen hurbiltasunagatik. *Vidas rotas* liburuan jasotzen den bezala, "1974ko irailaren 13an [diktadurak bere azken urteak bizi zituenean; Franco 1975eko azaroan hil zen], zenbait etakidek bomba bat jarri zuten kafetegiaren komunean, bai eta aurrekaririk gabeko sarraski bat eragin ere: 13 pertsona hilik eta beste 60 zauriturik, horietako hamaika Poliziako agenteak (...). Poliziaren adituek kalkulatu zutenenez, atentatuan hogeita hamar kilo dinamita eta bi zentimetroko diametroa zuten azkoinak erabili zituzten, eta azken horiek metrailaren lana egin zuten"<sup>4</sup>.

Antonio Alonso Palacín Alhama de Aragónen jaioa zen. Sei egun lehenago María Jesús Arcosekin ezkondu zen, hogeita zortzi urtekoa. Arratsalde hartan, bien ezkon-bizitza modu tragikoan zapuztu zen Rolando kafetegian. Antzeko amaiera izan zuten Baldomero Barralek eta honen emazte María Josefina Pérezek, hogeita lau eta hogeita bat urtekoak hurrenez hurren eta A Coruña-koak biak, Madrilera bisitan joanak. Gauza bera gertatu zitzaion Francisca Baezari, alaba bakarra bera, eta bere guraso zaharren zaintzaile; Félix Ayuso poliziari; hiru seme-alaben aita zen Gerardo García zerbitzariari eta honen lankide Manuel Llanosi; Francisco Gómez sukaldariari; Sevillako Villanueva del Río herrikoa zen Antonio Lobo trenbide-langileari; Luis Martínez saltzaileari, erretiroa hurbil zuen Concepción Pérez Paino administrariari eta María Ángeles Rey ikasle gazteari. Guztiek zituzten senideak eta lagunak, proiektuz eta ilusioz betetako bizitzak, eta bomba hark trenkatu zituen. Ezerk ezin du justifikatu halako krudelkeriarik.

María Ángeles Rey Martínez, atentatu hartan eraila, hogeitaz urtekoa eta Burgosen jaioa, azterketa batzuk egitera joana zen Madrilera. Haren aitak, Francisco Reyk, honako kontakizun hau eskaini zuen:

"...nire alaba gainerakoengandik banandu zen, nire ustez mahaia hartzeko metro batzuk aurreratu zen. Eta une horretan eztanda egin zuen bonbak. Askotan etorri izan zait burura metro gutxi batzuegatik ez zela salbatu nire alaba... Gabon haiak oso goibelak izan ziren, oso goibelak. Jendea pozik ikusten zenuen

kalean, erosketak egiten, eta gu gure tristuraren eta penaren zamarekin. Oso tristea zen familia guztiarentzat. Badirudi zazpi urteko nire seme txikiena, bere arreba hil zenean, gutxiago ohartu zela, baina beste bi alabek, 16 eta 14 urte zituztenek, asko sentitu zuten. María Ángeles haien alaba nagusia zen, eta harekin lotura estua zuten. Askok kostatu zitzairen hura gaingaitzea"<sup>5</sup>.

### IRADOKITAKO JARDUERA


Kontakizun hau banaka irakurri ondoren, bost ikaslelik gorakoak izango ez diren lan-taldeetan jarrita eta iritziak trukatu ondoren erantzunak adostuz beti (beharrezkoa da taldekide guztiek beren iritzia ematea), honako galdera hauek erantzungo dira:

Imajinatu une batez Rolando kafetegiko biktimaren baten senidea zarela. Telefonoak jotzen du eta albiste izugarria jasotzen duzu. Zure senidea leherketaren ondorioz hil da. Nola sentituko zinateke? Nola sentituko lirakeke zure senide eta lagunak? Zer sentimendu edo emozio izango lirakeke aipagarrienak une gogor horretan?

Bilatu informazio gehiago atentatu horri eta biktimei buruz, eta Francoren diktaduraz dakizunarekin erlazionatu. Ondoren, taldean eztabaida ezazue funtsezko gai bati buruz: helburuak bitartekoak justifikatzen al ditu?

<sup>4</sup> Alonso, Domínguez y García Rey, 2010: 40-42.

<sup>5</sup> Arteta y Galletero, 2006.



6. irudia. Nola geratu zen Rolando kafetegiaren barrualdea ETaren bonba batek eztanda egin eta gero. Madril, 1974ko iraila. Argazkia: BUA, La Gaceta del Norteren Funtza.

03.

SAIOA







Atochako sarraskiaren biktimenezako hileta (Madril, 1977ko urtarrila).  
Argazkia: Efe

HIRUGARREN SAIO HAU ESPAINIAKO TRANTSIZIOAREN ERREPASO HISTORIKO BATEKIN HASIKO DUGU; HAU DA, FRANCISCO FRANCO DIKTADOREAREN HERIOTZATI K FINKATZE DEMOKRATIKORA DOAN EPEALDIARENA. ONARTU BEHAR DUGU EZ DAGOELA GARAI HORREN MUGAKETARI BURUZKO ADOSTASUNIK. BATZUENTZAT 1975ETIK LEHEN HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOETARA DOA, 1977KO EKAINEAN OSPATUTAKOETARA, NON ADOLFO SUÁREZ AUKERATU BAITZUTEN PRESIDENTE; BESTE BATZUEK 1978KO DATA AUKERATZEN DUTE, ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ONARPENAREKIN BAT DATORRENA; BESTE ZENBAIT SEKTORERENTZAT EPEALDI HAU 1981EKO ESTATU KOLPEA ZAPUZTU ZUTEN ARTE LUZATU ZEN, EDO ARE SOZIALISTEN 1982KO GARAIPENERAINO.

SAIO HONETAN BI JARDUERA DAUDE, ETA HAI EK BURUTZEKO INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA LAGUNTZA HANDIKOA IZAN DAITEKEELA ESAN BEHAR DUGU.

## TRANTSIZIOA

1975eko azaroan Francoren heriotzak zalantza eta esperantza betetako epealdi bati hasiera eman zion Espainian. Diktadurak 40 urte iraun zituen, eta, urte horietan, Francok modu autoritarioan erabili zuen boterea. Hura hil ondoren, bere aldekoek Francok sortutako erregimenak jarraitzea nahi zuten, eta "Bunkerra" bezala ezagutu zena osatu zuten. Hala ere, biztanleriaren gehiengoak aldaketa bat nahi zuen, Espainiak, Europaren esparruan, salbuespen diktatorial bat izateari utz ziezaion. Gehiengo sozial horrek bilatutako demokraziak, beste zenbait gauzaren artean, indarkeriaren erabileraren monopolioa Estatuak edukitzea zekarren, bai eta legeak errespetatuz erabiltzea ere, Zuzenbidezko Estatu bati dagokion bezala.

1976tik aurrera, erregimen frankistaren erakundeak eraisteko eta askatasunak pixkanaka eraikitze prozesu bat hasi zen. Ondoz ondoko indultu eta amnistiei esker, 1977aren amaieran preso politiko guztiak kartzelatik kanpo zeuden, baita ETA edo GRAPO bezalako erakunde terroristen kideak ere, hilketaz akusatutak barne. Halaber, erregimen frankistaren izenean burututako krimenak amnistiatuta geratu ziren. Indarkeriaz betetako iragana gairatzea zen asmoa, une horretan oso presente zeuden zenbait printzipioen mesedetan, hala nola berradiskidetzea eta adostasuna. Espainiako gizarteak, euskal gizartearen gehiengoak barne, bere aurrean etorkizun baketsu bat zabaltzen zela pentsatzen zuten. Hala ere, terrorismoaren aldeko apustua egin zuteneko uko egin zioten hiltzen uzteari, eta, gainera, minaren bere makineria modu esponentzian areagotu zuten.

**La Voz de Galicia**  
 FUNDADO POR DON JUAN FERNANDEZ LATOZE  
 DIRECTOR: JUAN RAMON GALIÀ  
 Año XXI • Nº 30302 • La Galizia, martes 29 de agosto de 1978 • El diario de mayor tirada de Galicia, control oficial de... • 13 pags. • 1 edición

**ASELINADOS TRES MIEMBROS DE LAS «FOP» Y UN AGENTE DE POLICIA**

- En el Mercado de Abastos de Santiago dos jóvenes mataron a un guardia civil de un balazo en la sien
- Empuñando sendas pistolas, abandonaron el lugar y recorrieron varias calles a pie
- La Uliga Armada Galega reivindicó el atentado




**BARCELONA. LOS ASESINOS DEL POLICIA ARMADO FUERON APRESADOS Y UNO RESULTO HERIDO EN UNA PIERNA**

**EL CABO QUE MATO LA «ETA» EN MONDRAGON SERA ENTERRADO EN SANTA LUCIA DE GUNTIN (LUGO)**

**AMETRALADO EN FUENTERRABIA EL JEFE DEL SERVICIO DE INFORMACION DE LA POLICIA DE IRUN**  
 En página interior

**NO SERA APLAZADO EL VIAJE DEL REY A ARGENTINA**

La moción socialista fue rechazada por la Diputación Permanente del Congreso  
 En página 10 suplemental

En septiembre

**CONTACTOS DE ESPAÑA CON SUDAFRICA PARA UN CONVENIO BILATERAL PESQUERO**  
 En página 42 suplemental

POSIBLE TRAYECTO SEGURO POR LOS DOS TERRORISTAS DESTINADOS A CONCRETAR EL ATENTADO. ARANCO, MARÓN, EL MERCADO DE SANTIAGO. EN MEDIO DEL AVANZADO DEL NEAL, A PIE Y EMPUÑANDO SENDAS PISTOLAS BRON ALGUNOS TERRORISTAS BARRIA A QUE OCURRIERAN EN LA CALLE DEL DOO TORRESERRE. AMEREA EL CUERPO DE LA VICTIMA EN EL LUGAR DONDE FUE ABATIDO Y ANTES FOTÓ SE ARCHIVO DEL GUARDIA CIVIL ASESINADO

7. irudia. 1978ko abuztuaren 29ko La Voz de Galicia egunkariaren lehen orrialdea, Espainiako zenbait lekutan GRAPOkoek eta ETAK burututako zenbait hilketa terroristaren berri emanez. Iturria: La Voz de Galicia.

Espainiako Konstituzioa, eskubide eta askatasunen sistema berriaren oinarria, adostasun zabal batekin egin zen, eta 1978ko abenduan erreferendum bidez onartu zuten hiritarrek. Hurrengo urteetan, naziotasun eta eskualde ezberdinen autonomia estatutuen onarpenari esker, autonomien Estatua garatzen joan zen. Deszentralizazioa frankismoaren garaiko uniformizazio politiko eta kulturala ordezkatzera zetorren.

Diktaduraren sektore ideologiko nostalgikoak marko deszentralizatuaren aurkakoak ziren, baina, haien presioak gorabehera, lehen gobernu demokratikoak aurrera jarraitu zuen erreformekin. Bestalde, nahiz eta Euskadik autogobernu maila paregabea lortu Europaren esparruan, ez zen nahikoa izan nazionalismo erradikalarentzat; izan ere, Konstituzioa eta Autonomia Estatutua baztertu, eta indarkeriazko jarduerarekin jarraitu zuen.

Trantsizioa ez zen izan espero bezain baketsua. Gutxiengo batek demokrazia eraikitzeko prozesu hau desegonkortu nahi izan zuen, gainerakoei beren ideiak indarrean ezartzeko. Alde batetik, frankismoaren nostalgikoak diktadurara itzultzen saiatu ziren, eta

lortzen ari ziren eskubideak eraso zituzten, hala nola adierazpen askatasuna. Adibidez, 1977an Triple Ak *El Papsu* aldizkari satirikoaren erredakziora bonba-pakete bat bidali, eta Joan Peñalver atezaina hil zuen. Eskuin muturrak urte haietan egindako sarraskirik handiena Atochakoa izan zen, 1977ko urtarrilean. Hiru pistolari abokatu laboralisten bulego batera sartu ziren, Alderdi Komunistarekin eta Comisiones Obrerarekin lotura zuena, eta bost pertsona hil eta beste lau larriki zauritu zituzten.

Kontrako mutur ideologikoan, nahiz eta metodo berak erabiliz, GRAPOkoek beren iraultza partikularra egin nahi izan zuten armen bidez, eta polizia, guardia zibil, enpresari... mordoa hil zuten. Haien urterik hilgarrienean, 1979an, GRAPOkoek 31 pertsona hil zituzten. Trantsizioaren zenbait unetan presio terrorista oso bizia izan zen. Atochako sarraskia gertatu zenean, GRAPOkoek bi pertsona publiko oso garrantzitsu bahituak zituzten: Antonio María de Oriol politikari tradizionalista eta Emilio Villaescusa teniente jenerala.

Hala ere, beste erakunde batzuek eragindako mina txikiagotu gabe, demokrazia jaio berriaren aurkako mehatxu nagusiarena, talde hilgarriena, ETA izan zen, zeinak HB (Herri Batasuna) izeneko hauteskunde-koalizioaren inguruan ardazten zen babes sozial eta politikoa jaso baitzuen. Babes hura erabakigarria izan zen, eta ETA justifikatu eta babesten zuen ingurunea bizirik irauteko ezinbestekoa izan zela esan daiteke.

Raúl López Romok *Informe Forondan* jasotako datuen arabera, ETAK eta kideko beste erakunde batzuek, hala nola Komando Autonomo Antikapitalistek, 11 pertsona hil zituzten 1977an, 66 1978an, 80 1979an eta 96 1980an, trantsizioan zehar Espainian hilketa terrorista gehien izan ziren urtea<sup>6</sup>. Datu horiek interpretatzen baditugu, ikusiko dugu nola demokratizazioaren mugari nagusiak lortzen ari ziren aldi berean (Konstituzioa, autonomia estatutuak...), terroristek beren ahaleginak areagotu zituzten prozesua ezegonkortzeko, biktimen kopurua gehituz.

Urte horietan muturreko gutxiengo batzuk zeuden, eta ez zituzten beren aurkariak eskubideak dituzten pertsona gisa ikusten, baizik eta helburu partikularrak lortzeko ezabatu beharreko etsai gisa. 1981eko otsailaren 23an Gudarostearen sektore erreakzionarioek estatu-kolpea eman zuten. Beren aitzakia nagusietako bat hauxe izan zen, hain zuzen ere: ETArek etengabeko atentatuak militarren, polizien eta abarren aurka. Azkenean demokrazia nagusitu zen, baina trantsizioa, itxaropenez erretako garaia izan arren, zentzu handiko erabaki nabariarekin, ez zen garai baketsua izan, bortizkeria handiek astindu eta zeharkatu baitzuten. "Humus emankor" honetan, ETArri lotutako sektoreak Euskal Herriko espazio sinboliko eta publikoaren jabe egiten hasi ziren, eta hortik kanpo bota zituzten gainerako guztiak.

<sup>6</sup> López Romo, 2015: 40-41.



8. irudia. ETAK hil zuen Joaquín Imaz Polizia Armatuaren komandantearen hileta-segizioa. Iruñea, 1977ko azaroa. Argazkia: Jorge Nagore.

### 3.1 JARDUERA

#### NIK LEKUALDAKETA NAHI NUEN. HAN HIL EGIN BEHAR NAUTE

1979ko urriaren 8an gertatu zen. Francisco Ponce polizia nazionala zazpi lankideekin batera bazkaltzen ari zen Gurea Tabernan, Donostiako Loiolako auzoan. Bat-batean, ETA talde terroristako hiru kide tabernan sartu eta poliziak metrailatu zituzten. Tiroen ondorioz, zenbait polizia larriki zauriturik gertatu ziren, eta lokal berean zeuden hiru zibil ere zauriturik gertatu ziren. Franciscok bere lekukotza eskaintzen digu:

“Bizitza normala zen nirea, erraza. Beti izan naiz pertsona oso alai, nire lankideekin futbolera jokatzera atsegin nuen, eta ehunka adiskide nituen. Ondo moldatzen nintzen mundu guztiarekin.

Euskal Herria egokitu zitzaidan lantokitza. Nire ustez bihozkada bat izan zen, baina une horretatik aurrera urduri egoten hasi nintzen, kezkatu, sentsazio arraro bat nuen. Lankide bati ireki nion bihotza: Luis, une honetatik beldur naiz. Madrilera lekualdatuko gintuztela esan zigutenean, gauza bakarra pentsatu nuen: Horrenbeste denboraren ondotik, hiru egun hauetan ezer ez gertatzea espero dut, besterik ez.

Nola ezabatu oroitzapen hori! Atentatuaren eguna astelehena izan zen. Eibarrera joanak ginen, lankide batzuk eramatera... Donostian zegoen Loiolako kuartelera itzultzean, inguruko jatetxe batera joan ginen bazkaltzera, gure beharra bazuten eskura egoteko eta asko ez berandutzeko. Xehetasun ezdeusenak ere gogoratzen ditut: plater bat. Terroristak sartu eta metrailatu gintuztenean, bakoitzak ahal zuena egin zuen une horretan. Gogoan dut lurrean nengoela, eta, ekintza erreflexu batek bultzatuta, pistola bilatu nuen, baina ez nuen aurkitu. Lurrean ikusiz gero, bertan akabatuko gintuztela baino ez nuen pentsatzen, eta justu une horretan, mahaia mugitu nuen eta nire ondoan, belarritik gertu, plater bat erori zen mahaitik. Hotz geratu nintzen. Une horretan gorputza erretzen nuen, bala nire gorputza zeharkatzen sentitu nuen, dena sutan nuen. Baina, okerrean, Mariano nire lankidearen irudia izan zen, nigandik oso gertu zegoen, atergabe odoletan. Begiak pixkanaka ixten ari zitzaizkiola ikusi nuen, eta hatsa doi-doi zuela honako hau esan zidan: ‘Paco, hil egin gaituzte’.

Ospitalean, balen zuloak ikusi ondoren, ez zuten oso larritzat jo, eta biluzik utzi ninduten esku-ohetatean korridorean. Nire nagusia sartu zenean, ni gela batera eramateko eskatu zuen. Handik egun gutxira, ministroaren bisita jaso, eta nahi nuena eskatzeko esan zidan. Madrilera aldatzea eskatu nuen, nire sendatze-prozesuaz han ardura zitezen, ziur bainengoen nengoen lekuan hil egingo nindutela. Hurrengo egunean Madrilera eraman ninduten, eta behin han larrialdietako ebakuntza egin behar izan zidaten, hil egingo nintzen bestela.

Nire bizitza erabat aldatu zen. Gogoan, motibazioa eta poza galtzen dituzu. Beldur zara. Ezin nion ikasteari ekin, ez nuen mailaz igo nahi... Beldurrak jota nengoen, lanera berriro Euskal Herrira bidaliko ote ninduten... Hala ere, atentatu terroristetan hil diren lagunen kopurua ikusita, pribilegiatutzat daukat neure burua, bizirik nagoelako eta hemen nagoelako”<sup>7</sup>.

<sup>7</sup> Moreno Pérez y Folguera Heredia, 2015.

## IRADOKITAKO JARDUERA

Francisco Ponceren lekukotza irakurri eta gero, talde-lan bat eskatuko dizugu, non eskuduntza teknologiko eta digitalaren garapena erabakigarria izango den.

Segur aski, Franciscok eta bere lankideek jasan zuten atentatuak hunkitu egin zaitu. Litekeena da, halaber, aipatu poliziak bizi izan zuen erraietako beldurrari erreparatzea, hala atentatuaren ondoren nola geroagoko urteetan. Bilatu interneten atentatuari buruzko datuak, testuinguru historikoa, egile materialak, epaiketa, ezarritako zigorrak eta abar.

Francisco Ponceren bizitzaren historia Indar Armatuaren edo Estatuko Segurtasun Indarren zerbitzari askorena da, terrorismoaren jomugan egon baitziren. Berriro ere teknologiak erabiliz, kasu bakoitzean bat datozen puntuak ikusten al dituzu?

Egindako lanen aurkezpena, taldeka.

Talde ezberdinek eskolan aurkeztu behar duten azken ekoizpena dokumentatzeko, terrorismoaren biktimen elkarte edo fundazio batzuen webguneetan sartzea gomendatzen dizuegu, zehazki unitate didaktiko honen amaieran "gehiago jakiteko" atalean ikus ditzakezuen dokumentu-zentroetan.

9. irudia. Francisco Ponce.



## 3.2 JARDUERA

### TIROAK KANODROMOAN

GRAPOkoak diktaduraren azken urteetan eratu ziren erakunde terrorista gisa, eta 1977ko amnistiaren ondotik atentatuak egiten jarraitu zuten. Era horretan, bere indarkeriazko ekarpena egin zioten baketsua izatetik urruti egon zen Espainiako trantsizioaren garaiari, hainbat indarkeria mota larrik aztoratu baitzuten. María Pilarrek 15 urte baino ez zituen GRAPOko kide batzuek bere aitari, Casimiro Sánchez García guardia zibilar, tiro egin ziotenean. Erakunde Armatuko kideak urtebete zeraman Madrilén destinatua bere emaztearekin eta lau seme-alabekin. *La voz de las víctimas* liburuan haren alaba María Pilarrek lekukotza hunkigarri hau eskaintzen digu:

“Nire aitak Madrilera etortzea lortu zuen. Horren pozik geunde Madrilén geundelako... Bera pozik zegoen, bere seme-alabentzat zerbait gehiago lortu nahi zuelako eta dagoeneko zerbait lortu zuelako. Egun hartan, larunbata zen, bera eta ni erosketak egitera joan ginen, nire ahizpak 11 urte zituen eta aitak opari batzuk erosi nahi zizkion. Ondoren, lanera itzuli zen, eta nire ama, nire osaba eta ni kuartelera joan ginen, eta gaueko hamar eta erdiak aldera zalaparta asko nabaritu genuen. Nire ama urduri jarri zen, eta orduan esan ziguten atentatu bat nozitu zutela eta Gómez Ullara eraman gintuzten. Iritsi bezain laster, nire aita hilda zegoela esan ziguten.

Gogoan dut oso sendoa izan nintzela. Uniforme bat eramateko eskatu ziguten. Neronek bilatu nuen aitaren arropa hura janzteko. Zure bizitza aldatu egiten da. Dena aldatzen da, den-dena. Bera ez zegoen gurekin. Jada ezin zenion oparitu urtebetetzean ematen genion “Varón Dandy”a. Jada ez genekien kuartelean bizi ote gintezkeen, ez genekien ezer. Ez genekien beste leku batera joango ote ginen bizitzera, ez genekien jan ahal izango ote genuen, nire amak lan egin beharko ote zuen, nik ikasten jarraituko ote nuen. Ikaskideek eta irakasleek babes apur bat eman ziguten. Jendeak arraro begiratzen zigun. Gure aita militarra zen, uniforme zeraman eta hilik zegoen. Garai hura, ez dakit... oso iraultzailea zen. Batzuen ustez, zerbait gertatu baldin bazitzaion, bere lanagatik zen, edo merezi zuelako.

Galera oso handia izan zen. Aurrera egiten duzu borrokan jarraitu behar delako, baina izugarria izan zen, izugarria. Nire ustez, gaixotasun baterako prest gaude denok, baina honetarako... Kanean uzten duzu, eta handik ordu erdira esaten dizute pertsona batzuei gogoak eman dielako kendu egin dizutela. Ezin izan genion agur esan. Ez zigun denborarik eman. Kendu egin ziguten eta kendu egin ziguten. Ikusi genuenean, kutxan ikusi genuen”.

Lekukotza hau hemen ikus dezakezue:

<https://www.youtube.com/watch?v=mulkCKb-d9E>

### IRADOKITAKO JARDUERA

María Pilarren lekukotzaren irakurketaren ondotik (edo bideoa ikusi eta gero), taldeka egin daitekeena, jarraian zehazten dizugun lanari ekingo diozu, sarean eskura dagoen informazio guztia erabiliz.

Ikertu epealdi historiko hau eta, ondoren, GRAPOkoek eraildako pertsonen zerrenda bat egin. Zenbat pertsonen galdu zuten bizitza talde horren esku?

Nola erantzun zuen Espainiako gizarteak?

Eraildako pertsona horien senideek, María Pilarrek kasu, ez zuten inoiz mendekurik bilatu. Ziur asko, bere aitaren hilketaren une latzak gogoratuz irakurri edo entzun dituzun esaldietako bat bereziki azpimarragarria iruditu zaizu. Idazterik izango zenuke?

Bildutako esaldiekin irakurketa dramatizatu bat prestatu ahalko litzateke, gainerako ikasleak sentsibilizatzeko helburu bikoitzarekin: alde batetik, estatuko zerbitzari xume bati erasotzea zein bidegabea den oartzeko, eta, bestetik, terrorismoaren biktimek erakutsi duten espiritu eskuzabala, gorroto edo mendekurik gabea, aitortzeko.



10. irudia. Casimiro Sánchezen alarguna eta seme-alabak GRAPOkoek hildako guardia zibilaren hileta-elizkizunean. Madril, 1975eko abuztua. Argazkia: EFE.

### 3.3 JARDUERA

#### ALONSOTEGIKO ESNE-SALTZAILEA

Liborio Aranak, bere emaztearekin eta semeekin batera, behi-hazkuntza bat zeukan eta esnea banatzen zuen Bizkaiko Alonsotegi herrian, une hartan Barakaldoko herriaren barruan zegoena. Familia apala zen, eta oso preziatua herrian, "Alonsotegiko esne-saltzaileak" ziren. 1980ko urtarilaren 20an, Grupos Armados Españoles (GAE) izeneko eskuin muturreko talde batek bomba indartsu bat jarri zuen Aldana tabernan, zeina oso lokal maitatua baitzen udalerrian. Leherketak lau pertsona hil eta hamar zauritu zituen. Hildakoetako bat Liborio Arana izan zen. Seme gazteenak, Iñakik, bere testigantza erdiragarria eskaintzen digu:

"Atentatuaren gaua larunbata zen. Hamar eta erdiak edo hamaikak izango ziren. Aita behiei jaten aritu zen, eta, ondoren, tabernara joan zen. Berriketari aritu ginen tarte batez. Etxera eraman nahi izan nuen, baina esan zidan: Hara, gero alpapa eta ura emango diet behiei, pentsua eman diet oraintxe... Zoaz lasai. Ni, neure haur txikia neramanez, bada etxera joan nintzen eta... Hantxe geunden lasai-lasai, eta leherketa entzun genuen: Bum! Zer gertatu da? Arropa hartu, behera jaitsi, eta jendea jada korrika zebilen. Aldana taberna lehertu dutela! Joder, eta nik hantxe utzia nuen aita. Javi nire anaiarekin atera, eta dena nola zegoen ikusi genuen. Galdezka hasi nintzen, ea nire aita ikusi al zuten. Bizilagunek buelta ematen zuten, ez zidaten esan nahi, apurua ematen zien.

San Eloyra [ospitalera] jaitsi nintzen, bertara eraman baitzituzten zaurituak, ebakuntza-gelaraino ere sartu nintzen. Ezer ez. Herrira berriro igo, eta orduan etorri zen gure familiako medikua, eta esan zidan: Zure aita hilda dago. Gero, etxera joan nintzen albistea ematera. Garai hartan ez genuen telefonorik, gehiegizko luxua zen guretzat.

Hurrengo goizean senide batzuk laguntzera jaitsi ziren, behiak jetzi beharra baitzegoen, eta gainerakoak aitaren zatiak jasotzera joan ginen, han botata baitzeuden. Gogoan dut senide batzuk eztabaidan ari zirela gibel puska bategatik, beso batengatik. Harago, hanka bat agertu zen baratza batean... Oso gogorra izan zen. Gau hartako atentatua izugarria izan zen... Gero ere oso gogorra izan zen. Izan ere, ez genuen horretaz hitz egiten. Nire semeari ez nion atentatuaz ezer kontatu orain gutxi arte. Ertzain egin nintzen hura argitzen saiatzeko. Poliziak oso gaizki jokatu zuen, batez ere ikerketan eta tratuan... José Amedo —gerora GALengatik zigortua— izan zen ikerketaren burua.

Lehen une batean ezker abertzaleak kontua babestu zuen. Urteurren egunean lore-sorta bat eramaten zuten. Baina, ondoren, ama etxeetatik esnea banatzeetik zetorrenean, gutun mehatxagarriak topatzen zituen: Besteek senarra hil dizute, baina guk seme-alabak hilko dizkizugu ertzainak izategatik. Oso gogorra izan zen nire amarentzat. Ez genuen etxean telefonoa jarri nahi, dei mehatxagarriak jaso ez zitzaizkien. Hortaz, sekulako muturrekoak hartzen genituen bi aldeetatik"<sup>8</sup>.

#### IRADOKITAKO JARDUERA

Iñaki Aranaren testigantza irakurri ondoren, honako jarduerak proposatzen dizugu 1-2-4 lan-kooperatiboko teknikaren bidez.

Jarduera hau egiteko beharrezkoa da klasea lau ikasleko taldeetan banatzea. Banakako pentsamenduaz gain, bikote- eta talde-ikuspegia izateko lankidetzak funtsezkoa da jarduerak honetan.

1. fasea. Isiltasunean, atentatu honetan gertatutakoak hausnartu. Gertatutakoaren izugarrikeria, familia-rentzako ondorioak, bereziki Iñakirentzat eta bere amarentzat. Zein puntu azpimarratuko zenituzke batez ere kontakizun guztian? Puntu horiekin testu labur bat idatzi behar duzu, bi edo hiru esaldikoa baino ez.

2. fasea. Bikoteka, ozen pentsatu, zuen bi esaldiekin buruz hitz egin eta elkarrizketan jardun. Elkarrekin egindako ekarpenak eztabaidatu, adostu eta berregin behar dituzue; eta horrekin testu bakar bat idatzi behar du bikote bakoitzak, bi edo hiru esaldikoa baino ez.

3. fasea. Bikoteak bilduta, hau da lau taldea, ozen pentsatu, zuen bi esaldiekin buruz (bikote bakoitzarena) hitz egin eta elkarrizketan jardun. Bikote bakoitzak egindako ekarpenak eztabaidatu, adostu eta berregin beharko dituzue, eta horrekin talde osoaren testu bakar bat idatzi, bi edo hiru esaldikoa baino ez. Hori izango da amaierako ekarpena, irakasleek ebaluatuko dutena.

Bildutako esaldiekin bereizgailu (orri-markatzaile) batzuk egin daitezke gelan edo ikastetxean banatzeko.

<sup>8</sup>López Romo, 2018: 219.





11. irudia. Aldana taberna zegoen eraikina, erabat suntsitua eskuin muturrak burututako atentatu baten ondotik (1980/01/20). Argazkia: BUA, La Gaceta del Norteren Funtza.

04.

SAIOA

AKASKAK ASKATU A  
ESTRADOS LIBERTAD

12. irudia. ETAk bahituta zituen José Antonio Ortega Lara eta Cosme Delclaux-en askapenaren aldeko elkarretaratze´a Laudion, erradikal nazionalisten kontramanifestazioaren parez pare (1996/12/23). Argazkia: El Correo.

LAUGARREN ETA AZKEN SAIO HONETAN 1982KO EPEALDI DEMOKRATIKOAREN OSTEAN ESPAINIAN BIZI IZAN DEN TERRORISMOAREN ARAZOA LANDUKO DUGU. EPEALDI DEMOKRATIKO HONETAN ZEHAR GRAPOAK EDO GALAK BEZALAKO INDARKERIAZKO ADIERAZPENEK JARRAITU ZUTEN. LEHENEK, ESATERAKO, PUBLIO CORDÓN ENPRESARIA BAHITU ETA HIL EGIN ZUTEN 1995EAN. BIGARRENAK, BERRIZ, JARDUNEAN ARITU ZIREN 1983TIK 1987RA (URTE HORRETAN ERAIL ZUTEN JUAN CARLOS GARCÍA GOENA, BEREN AZKEN BIKTIMA). ETAK ERAILKETA TERRORISTA GEHIENEN ERANTZULE IZATEN JARRAITU ZUEN INDARKERIAREN BEHIN-BETIKO ETETERA ARTE, 2011KO URRIAREN 20AN IRAGARRIA. GARAI HORRETAN HILTZE KOPURU HANDIKO ATENTATUAK BURUTU ZITUEN, HALA NOLA HIPERCORREKOA (1987), ETA ERAGIN SOZIAL HANDIKOAK, HALA NOLA MIGUEL ÁNGEL BLANCOREN BAHIKETA ETA ONDORENGO ERAILKETA (1997).

Laugarren eta azken saio honetan 1982ko epealdi demokratikoaren ostean Espainian bizi izan den terrorismoaren arazoa landuko dugu. Epealdi demokratiko honetan zehar GRAPOak edo GALak bezalako indarkeriazko adierazpenek jarraitu zuten. Lehenek, esaterako, Publio Córdón enpresaria bahitu eta hil egin zuten 1995ean. Bigarrenak, berriz, jardunean aritu ziren 1983tik 1987ra (urte horretan erail zuten Juan Carlos García Goena, beren azken biktima). ETak erailketa terrorista gehien erantzule izaten jarraitu zuen indarkeriaren behin-betiko etetera arte, 2011ko urriaren 20an iragarria. Garai horretan hiltze kopuru handiko atentatuak burutu zituen, hala nola Hiperkorrekoa (1987), eta eragin sozial handikoak, hala nola Miguel Ángel Blancoren bahiketa eta ondorengo erailketa (1997).

Garai hartan, gizartearen zati baten —euskal gizartearena eta espainiar gizartearena oro har— erreakzioa areagotu zen terroristen eta haiek txalotzen zituztenen aurka. Hainbat eragilek lagundu zuten kontzientzia askoren esnatze etiko horretan, eta horien artean, biktimak berak aipatu behar dira, elkartzen joan baitziren. AVT aitzindaria, Asociación de Víctimas del Terrorismo (Terrorismoaren Biktimen Elkarte), 1981an jaio zen jada. Ondoren beste talde eta fundazio batzuk sortzen joan ziren, gaur egun ezagutzen ditugun hogeita hamarreko kopurura heldu arte. Haien lana, funtsezkoa biktimen ezagutarazte publikorako, lau kontzeptu handitan inspiratzen da: justizia, egia, duintasuna eta oroimena.

Terrorismoaren deslegitimaziorako beste euskarri bat bakearen inguruko mugimendua izan zen, Gesto por la Paz edo Denon Artean-Paz y Reconciliación bezalako gizataldeek abiarazia, beren gaitzespen publikoa adieraztera ausartu zirenak, ez zena batere erraza Euskal Herriko zenbait herritan<sup>9</sup>. Mugimendu bakezalea 1980ko hamarkadaren erdialdean sortu zen. Beste biktima mortal bat edo bahiketa bat zegoen aldiro, aipatu entitateek 15 minutuko elkarretaratze isil baterako deia egiten zuten hainbat herri edo auzoetako leku finko batzuetan. Ehunka hiritarrek, horien artean terrorismoko biktimek, parte hartzen zuten ekitaldi horietan.

Aipatuz gain, beste erakunde batzuk ere sortu ziren, talde terroristarekiko eta hura justifikatzen zutenekiko gaitzespena agerian jartzea lortu zutenak ere: Bakea Orain, Asociación Pro-Derechos Humanos del País Vasco eta abar. Laurogeita hamarreko urteen amaieran bakezaletasunaren esparru klasikoa gairatzen zuten beste gizatalde batzuk agertu ziren euskal agertokian Konstituzioaren defentsa esplizitu bat egiteko eta manifestazioak antolatzeko, baina manifestazio hauek isilak izan ordez, talde terroristarekin eta ezker abertzalea deiturikoarekin, baita oro har euskal abertzaletasunarekin ere —zeinari ez aritzea eta distantziakidetasuna leporatzen zioten—, kritikoak ziren. Hala, Foro Ermua eta Basta Ya plataforma sortu ziren.

Ezin dugu ahaztu milurteko berriarekin beste terrorismo mota bat sortu zela, jihadistak. Gauza berria ez bazen ere, indar handiz agertu zen nazioarteko komunitatearen aurrean 2011ko irailaren 11n AEBetan. Gure herrialdean, terrorismo mota horrek krudelki kolpatu gintuen 2004ko martxoaren 11n, Madrilen 193 hildako eta 1.700 zauritutik gora eragin zituenean. Beste behin ere, 2017ko abuztuaren 17an terrorismo mota honek 16 hildako eragin zituen Bartzelonako Rambletan eta Cambrilsen.

13. irudia. Basta Yak antolatutako manifestazioa, "Defendamos lo que nos une: Estatuto y Constitución" (Defenda dezagun batzen gaituena: Estatutua eta Konstituzioa). Donostia, 2000ko iraila. Argazkia: Santos Cirilo/El País.



<sup>9</sup> Gómez Moral, 2013.



14. irudia. Suhiltzaileak Bartzelonako Hiperkorreko aparkaleku barrura sartzeko ahaleaginean, ETAREN leherketa batek erasana (1987/06/19). Argazkia: EFE.

## SENDOTZE DEMOKRATIKOA

1980ko hamarkadaren hasieran demokrazia egonkortu egin zen Espainian. 1981eko otsaileko Estatu kolpeak huts egin zuen, eta Europan integratzeko eta modernizazio ekonomiko, sozial eta kultureko bide bati hasiera eman zitzaien. Dena den, demokraziak hainbat mehatxu terroristari aurre egiten jarraitu behar izan zuen.

15. irudia. Suhiltzaileak Zaragozako kuartel-etxearen erreskate lanetan ETAK jarritako bomba-autoaren ondoren (1987/12/11). Argazkia: EFE.



Demokraziak, kudeaketa politikoko formula gisa Zuzenbidezko Estatu batean, gatazkak modu baketsu eta elkarriketuan konpontzeko formulak ematen dizkigu. Zentzu horretan, Espainiako biztanle gehienek gero eta gehiago ikusten zuten terrorismoa aukera izugarri eta bazterreko bat bezala, sektore muturreko eta totalitarioek berezkoa zutena. Hala ere, sektore minoritario baina esanguratsu batek indarkeriazko ekintzak babesten zituen. Terroristek, denbora askoan zehar frogatu zuten bezala, mina eragiteko eta denon askatasunak mehatxatzeko gaitasuna zuten oraindik.


1980ko hamarkadan zehar, ETA Guardia Zibilaren Zaragozako kuartel-etxearen aurkako atentatuaren erantzulea izan zen, 11 hildako utzi zituena (horien artean bost haur), baita Bartzelonako Hiperkor supermerkatuaren aurkako atentatuarena ere, 21 biktime mortal utzi zituena (horietako lau, haurrak). Azken hau izan zen Espainiako sarraski terrorista handiena M-11-ra arte.

Laurogeiko urte haietan terrorismo parapolizial mota bat agertu zen baita ere GAL siglen pean. Azpizoko ilegal honetan zenbait kargu publiko sartuta egon ziren, horien artean orduko Barne Ministroa eta Segurtasun Indarren funtzionario talde bat. Haien helburua ETARI aurre egitea zen, ETAREN metodo berak erabiliz. 1983 eta 1987 urteen artean GALEkoek 27 hilketa burutu zituzten. Haien kasuak, orobat biktimekiko izugarria eta bidegabea, zera gogorarazten digu, terrorismoaren aurkako borrokak Zuzenbidezko Estatuaren arauak errespetatu behar dituela, areriotzat duten terrorismoarekin parekatzea saihesteko.

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, erakunde gisa, Zuzenbidezko Estatuaren ondoan egon ziren. Aldameneko herrialdearen, Frantziaren, lankidetzak lagun, eta legearen arabera jokatu, benetan eraginkorrak izan ziren, eta etakide asko atxilotu zituzten, ondoz ondoko buruzagiak barne. Era horretan, talde terrorista oso ahulduta geratu zen jada laurogeita hamarreko urteetan eta, batez ere, mende berriaren lehen hamarkadan. Talde terroristaren ahultze hori dela eta, uzkurraldia sortu zen hura babesten zuten zenbait sektore sozialen artean, eta indarkeriaren erabileraren eraginkortasunik eza planteatzen hasi ziren, irabazpide politikoaren zentzuan ulertuta.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren urteetan, gizartea ETaren inguruneari apurka-apurka kalea irabazten joan zitzaionean, bandaren erailketek mobilizazio eta protesta gero eta jendetsuagoak jaso zituzten erantzun gisa. Julio Iglesias Zamoraren bahiketak 80.000 pertsonatik gorako manifestazio bat eragin zuen Donostian, haren askatzea eskatuz. Testuinguru horretan Gesto por la Pazek sinbolo bat sortu zuen, lazo urdina, arropan jartzen zena askatzea galdatzeko eta indarkeria terroristarekiko gaitzespena erakusteko. Espainian egin ziren manifestazio jendetsuenak 1997an egin ziren, Miguel Ángel Blanco Ermuako zinegotzi gaztearen bahiketaren eta hilketaren harira, ETAk burutu zuena. Orduko hartan milioika pertsona atera ziren kalera Espainia guztiko hiri eta herrietan. Lazo urdinarekin gertatu bezala, orduan mugimendu bakezaleen manifestazioetara joan zirenek indarkeriaren aurkako beren gaitzespena adierazi zuten zuriz margotutako beren eskuak jasoz. Era horretan, terroristek ez bezala, beraiek eskuak odolez zikinduta ez zituztela erakutsi nahi zuten.

Beste indarkeria batzuk pixkanaka desagertu arren (GRAPOkoen azken hilketak 2006an izan zen, eta Ana Isabel Herrero enpresariari bitzta kendu zioten), ETaren indarkeria 2011ko urriraino luzatu zen. Amaieran honetan funtsezkoa izan zen poliziaren lana eta Frantziaren lankidetzak. ETA ahularazten joan zen borroka antiterroristaren mugarraren artean —borroka horrek ekarri zuen ETAk terrorismoari uko egitea—, 1992ko operazio bat aipatu behar da, bandaren goi-kargu guztiak harrapatzeko aukera eman zuena. 2004an “Santuario operazioa” etorri zen, ETAk Frantziako lurraldean zituen armen eta lehegaien ezkutaleku handiak agerian jarri zituen eta taldearen politika- eta estorsio-aparatuko arduradun nagusiak harrapatzeko balio izan zuena. 2000. urtetik, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila, Inteligentziako Zentro Nazionalarekin eta Frantziako polizia-zerbitzuekin lankidetzan, Frantziaren ezkutatuta zeuden ETAko buruzagi nagusiak bata bestearen atzetik harrapatzen joan ziren, eta, aldi berean, Espainian atentatuak burutzen zituzten zelula terrorista gehienak desegin zituzten. Ikerketak Europako beste zenbait herrialdetara zabaldu ziren ere, hala nola Alemaniara, Erresuma Batura, Belgikara edo Italiara, non etakideak ezkutatuta baitzeuden, baita Portugalera ere, non bandak lehegai fabrika



16. irudia. GALen gutun mehatxatzaile bat (1985). Argazkia: BUA, La Gaceta del Norte Funtsa.

bat jarri baitzuen. Poliziaren jazarpena ETaren jarduteko gaitasuna murrizten joan zen, terrorismoari uko egitera behartu zituzten arte.

Poliziaren eta epaileen ekintzari erantzun soziala (mugimendu bakezalea), politikoa eta judiziala batu zitzaion. 2003ko ekainean, Alderdien Legearen ezarpenari jarraikiz, Batasuna (ETaren adar zibila eta HBren ondorengoa) legez kanpokotzat jo zuten Espainian. Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2009an berretsitako neurri honek ekarpen handia egin zion ETaren porrotari. Azkenik, 2018ko maiatzaren 3an ETAk bere desagitea iragarri zuen, atzean historia beltz bat utzita.

Hala ere, XXI. mendeak beste mehatxu bat ekarri zigun, Mendebaldean ordu arte ia-ia ezezaguna: terrorismo jihadistak. Dagoeneko aritua zen Espainian, adibidez, Madrilgo El Descanso jatetxearen aurka bonba bidez egindako atentatua, non 18

persona hil ziren. Baina oraingo honetan gogortasun handiagoz itzuli zen, 2004ko martxoaren 11n Madrilgo lau trenatan burututako atentatu izugarriak frogatzen duen bezala, Espainian inoiz egin den sarraskirik handiena izan zena. Fiskaltzak bere akusazio idatzian adierazi zuenez, 2001an Al Kaedako zelula bat desegin zuten, eta desegite horri erantzuna eman nahian hasi ziren Espainian atentatu jihadistak burutzeko prestatze-lanak. Fiskaltzaren arabera, prestatze-lan horietan Al Kaedarekin, Talde Islamiko Borrokalari marokoarrarekin eta Aljeriako Talde Islamiko Armatuarekin lotutako pertsonak zeuden, baita gaizkile arrunt erradikalizatuak ere. Hala ere, ez Entzutegi Nazionalak 2007ko urriaren 31n emandako epaian, ezta Auzitegi Gorenak apelazioan emandakoan ere, ez ziren tesi horiek islatu; izan ere, Gorenaren sententziaren 9. zuzenbidezko oinarriak honela dio hitzez hitz:

"Kasuan, instantziako epaian, izaera terrorista duen talde antolatu baten berri ematen da, leherketa eragin ostean Leganeseko pisuan bizitza galdu zuten pertsonen, edo haietako batzuek behintzat, osatzen zutena. Haietako bakoitzari ez zaio erantzukizun penaleko egozte indibidualizatu bat ezartzen, heriotzarekin iraungi baitzen. Ondorioz, epaituak ez izatea

eta haien jokabidearen inguruan karguzko edo deskarguzko frogarik ez egitea eragin zuen horrek. Hala ere, hemen inpugnatutako ebazpenean erabilitako datu mordotik ondorioztatzen denez, Leganeseko pisuaren leherketan bizitza galdu zuten zenbait pertsonen gutxienez talde antolatu bat osatzen zuten, eta 2004ko martxoaren 11ko ekintza terroristen burutzean parte hartu zuten. Dinamitaren jatorriak; hildakoren batek dinamitaren hornitzaileekin zuen harremanak; lehergaiak lortu eta ezkutatzeari buruzko datuek; lehergailuen prestatetari dagozkion osagaiak; eta, batez ere, Leganeseko pisuan, egoileek eragindako leherketaren ostean, hondakinak kentzean topatutako objektuek, horiek guztiek frogatzen dute talde horrek martxoaren 11ko atentatuarekin zuen lotura. Al Kaedak defendatutako postulatuekiko mendekotasun ideologikoa ondoriozta daiteke ekintza terroristen egiletzari buruzko aldarrikapenen edukitik eta atzemandako gainerako materialetik. Hala ere, ez dago izaera hierarkikoko inolako harremanik beste talde batzuekin edo erakunde horren beste

17. irudia. Miguel Ángel Blancoren askatzearen aldeko manifestazio jendetsua Bilboko udaletxera heltzen (1997/07/12). Argazkia: Fidel Raso/Diario 16



agintari batzuekin. Hori dela eta, esan daiteke Madrilan jardunean zegoen zelula, identifikatua izan den neurrian, ez zegoela hierarkikoki beste baten mende, eta, beraz, ondorio penalei dagokienez, talde edo erakunde terroristak ezberdin eta independentetzat jo daiteke”.

Espainia osoan M-11ko atentatuaren ondoren deitutako mobilizazioak, Miguel Angel Blancoren hilketaren ondoren egindakoekin batera, gure arestiko historiako jendetsuenak izan zirela esan behar dugu. Lazo beltza M-11ko atentatuekiko gaitzespenaren eta biktimekiko elkartasunaren adierazpena izan zen.

Terrorismo jihadistak jardunean jarraitzen du gaur egun munduko hainbat herrialdetan. Ezin ahaztuko ditugu 2017ko udako Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuak, Daesh delakoak eginak, Estatu Islamikoa ere deritzona. Aipatu erakunde terroristak hau 2014tik aurrera hasi zen protagonismoa eskuratzen, Ekialde Ertaineko bi herrialderen (Siria eta Irak) zati handiak bere kontrolpean jartzea lortu zuenean.

Al Qaeda 1988an jaio zen Afganistanen. Haren sortzaileak, Osama Bin Ladenek, hirurogeita hamarreko urteen amaieran herrialdea okupatu zuten sobietarren aurka borrokatu zuen. SESB zaharreko gudarostea lurralde hartatik erretiratu zen urtean sortu zuen Bin Ladenek talde terroristak, eta bere jomugan jarri zituen AEBak, Al Qaeda inspiratzen zuen erradikalitasuna partekatzen ez zuten herrialde islamiarren gobernuak eta mendebaldeko herrialdeak oro har. 1998an, beste zenbait talderekin batera, Al Kaedak Judutarren eta Gurutzatuen aurkako Yihada egiteko Munduko Fronte Islamikoa eratu zuen. Bin Laden buru zuen erakundearen atentatu garrantzitsuenak New Yorkeko Dorre Bikien eta Washingtongo Pentagonoaren aurka 2001eko irailaren 11n egindako erasoak izan ziren, hiru mila hildako eragin zituenak. AEBen erreakzioa Iraken eta Afganistanen militarik esku hartzea izan zen.

Urtetan zehar, Al Qaeda izu jihadistaren sinboloa izan zen. Afganistanen eta Pakistanen ezkutatuak zegoen erdiguneak erabakitako atentatuak burutzen zituen, edo, besteak beste, Arabiako Penintsulan, Magreben, Iraken, Afrikako Adarrean antolatutako zituen frankizia ezberdinek erabakitakoak. 2011n militar iparramerikarrek tiroz hil zuten Bin Laden hura ezkutatzen zuten Pakistango etxean.

Iraken jarduten zuten Al Kaedako adarrak zuzendaritza nagusiarekin hautsi, eta Irakeko eta Sortaldeko Estatu Islamikoa deitura hartu zuen 2013an, Siriako gerran sartzen zen aldi berean. Hurrengo urtean, bi herrialde horietako zati handi asko terroristen kontrolpean jarri zituzten garaipen militar entzutetsuak lortu ostean, Estatu Islamikoak, Daesh izenez ere



18. irudia. Ehunka milaka pertsonak parte hartu zuten 2004ko M-11ko atentatuaren hurrengo egunerako deitu zen manifestazioan “Biktimekin, Konstituzioarekin, terrorismoaren porroterako” lelopean. Argazkia: Emilio Naranjo/EFE.

ezaguna (bere sigla arabiarrek dela medio) Kalifataz aldarrikatu zuen. Bi talde terroristak, batetik Al Qaeda, bere adar siriarraren bidez, Al Nusra Frontea, eta, bestetik, Daesh, militarik elkarren aurka borrokatzera heldu ziren mugimendu jihadistak osoaren gaineko hegemonia eta Siriako lurraldeen kontrola lortzeko.

Orduan, Daeshak estremista guztien erreferentzia bihurtu zen, eta milaka lagun Siriara joan ziren talde horren lerroetan borrokatzeko. Europa osoko jihadistak eta munduko dozenaka herrialdeetakoak Ekialde Ertainean gerra egitera joan ziren. Espainiatik berrehun lagun baino gehiago joan ziren. Terroristen joan-etorria 2017an hasi zen gutxitzen Daeshak jasotako zoritxar militar larriengatik, eta kontrolpean zuten ia lurralde guztia galdu zuten horren ondorioz. Estatu Islamikoak hainbat atentatu bultzatu eta sustatu zituen Europako hainbat herrialdetan, besteak beste, Bartzelonan eta Cambrilsen 2017ko abuztuan gertatutakoak.

Terrorismoak, biktimek zuzenez —hildakoak eta zaurituak— eta kalte materialez gain, beste biktimek mota batzuk ere eragiten ditu, mehatxatutakoak. ETA da mehatxatu kopuru handiena eragin duen taldea. Atentatu bat nozitzeko larritasunarekin bizi izan zirenak dira, eta, zenbaitetan, etxea eta lurra utzi behar izan zituzten Espainiako beste leku batean salbu jartzeko. Horietako



19. irudia. Ehunka lagun Bartzelonako La Ramblan bilduta, Miró-ren mosaikoan, non herritarrek kandelak, loreak eta 2017ko abuztuko atentatuaren biktimen aldeko babes- eta oroimen-mezuak uzten dituzten. Argazkia: Alejandro García/EFE.

batzuk ETaren jomugan zeuden kolektibo jakin batekoak izateagatik (ESleko kideak, alderdi konstituzionalistetako kargu publikoak, kazetariak, irakasleak, enpresariak, epaileak, terrorismoarekin kritikoak ziren intelektualak eta abar luze bat). Beste batzuk hainbat arrazoi partikularrengatik zeuden mehatxatuen taldean, hala nola ETari ordaintzeari uko egiteagatik edo terroristek eraso baten merezidun bihurtzen zituen edozein gauza leporatu zietelako: besterik gabe, Euskal Herriaren etsai izatea. Mehatxu terrorista eta "jazarpen bortizkeria" zeritzona dela eta, milaka pertsona polizia-babesarekin bizi izan ziren hainbat urtetan, eta beste zenbaitek beren etxea, hiria, lagunak, zaletasunak eta lana utzi behar izan zituzten, hau da erbestera jo behar izan zuten bere lurrian larriki mehatxatua zegoen segurtasunaren bila.

"ALLÍ ESTABA EL TERRORISMO, SUS EJECUTORES Y LOS QUE LES EXHORTABAN. ALLÍ ESTABAN LAS VÍCTIMAS, MUCHAS DE ELLAS SIN MÁS PAPEL QUE MORIR. ALLÍ ESTABA LA SOCIEDAD, OMISA Y EXTRAVIADA. ALLÍ ESTABAN, CUANDO PUDIERON, LOS REPRESENTANTES POLÍTICOS Y LA FRAGILIDAD PROPIA DE QUIEN SUFRE CONTINUAMENTE LA TENTACIÓN DE OBTENER ALGO A CAMBIO. RESULTABA DIFÍCIL VER ENTRE TANTA MALEZA. PERO, DE REPENTE, SURGIÓ, ALLÍ TAMBIÉN, UN PEQUEÑO GRUPO DE PERSONAS ANÓNIMAS QUE, CON UN PAPEL SECUNDARIO, DE ESOS QUE LOS ACTORES SUELEN DESCRIBIR COMO *TENGO UNA FRASE, PERO ES FUNDAMENTAL PARA LA HISTORIA*, SE PLANTÓ EN MEDIO DE LA TARIMA CON OBJETO DE ARROJAR UN POCO DE LUZ SOBRE AQUELLA OBRA DE DESOLACIÓN... A PARTIR DE ENTONCES, YA NO QUEDARÍA NINGUNA MUERTE SIN RESPUESTA".

ANA ROSA GÓMEZ MORAL

20. irudia. ETAk Eduardo Puelles polizia nazionala hil zuen lekua, ibilgailuaren azpian jarritako bonba-lapa baten bidez. Arrigorriaga, 2009ko ekaina. Argazkia: Luis Alberto García/El País.





## 4.1 JARDUERA

2004ko martxoaren 11n, gure gogoan M-11 bezala geratuko den horretan, Espainiak atentatu izugarri bat jasan zuen Madrilén, 193 hildako eta 1.700 zauritutik gora eragin zituen, horietako batzuk ondorio larriekin. Zenbait zelula jihadistek bonbak jarri zituzten hiriburuko aldiriko sareko lau trenetan. Emaitza danteskoa izan zen, eta oraindik ere ikara ematen du gogoratzeak. Indarkeria jihadistak, islamiar-usteko justifikazioa duenak, behin eta berriz eta modu globalean jo zuen herrialde askotan, gehienak arabiarrek eta populazio musulmana dutenak. Indarkeria hori Europara iritsi zen ere. Horrela, gure herrialdeaz gain, Ingalaterrak, Belgikak, Frantziak, Holandak, Alemaniak, Suediak eta abarrek jasan dituzte haren oldarrak, eta biktima kopuru oso handia sortu dute. Espainian, hamahiru urte geroago, 2017ko abuztuan, beldurrezko modu horrek berriro eraso zuen, oraingoan arma gisa furgoneta bat gidatuz, Bartzelonako (15 hildako eta ehun zauritu baino gehiago) eta Cambrilseko (herri honetan emakume bat hil zen) atentatuekin. Zalantzarik gabe, nazioarteko komunitateak terrorismo molde global eta berri bati aurre egin behar dio, biktimak eta krudelkeria ikaragarria sortzeko gaitasun handia duena. Irailaren 11tik hona berrikuntza bat suposatu arren, terrorismo tradizionalaren ezaugarri asko mantentzen dira: doktrinamendua, sostengu ideologikoa, errekrutatzea eta hizkuntza sektario baten erabilera, hiltzeko eta kausa batengatik erailtzeko prest dauden militante fanatikoak prestatzeko helburuarekin, izan kausa hori erlijiosoa, etnikoa, identitatezkoa edo ekonomikoa.

21. irudia. Atentatua gertatu ondoren, suhiltzaileak eta osasun langileak zenbait gorpu aztertzen ari dira Atochako geltokiko bagoi baten hondakinen artean. Argazkia: Emilio Naranjo/EFE.



## SAN FERNANDO, COSLADA, SANTA EUGENIA, EL POZO...

Antonio Miguel Utrera, Historiako ikasle gaztea, oso larrizaurituta gertatu zen M-11ko atentatuetan Madrilén. Gertatutakoaz duen ikuspenak bidaiari gazte baten pertzepziotik murgilarazten gaitu une tragiko haïetan, fanatismo erlijiosoak markatutako egun hartan. Gertatutakoari eta ondorengo berreraikitze-ari buruzko narratiba interesgarria eskaintzen duen testua da berea, kontaketa zauritua, lazgarria eta poetikoa aldi berean. Merezì du hainbat aldiz irakurtzeak:

"Eta begiak ixten ditut triki-trakaren erritmoan, eta lo egon nahiko nuke, milaka kilometrora; bien bitartean, geltokiak bata bestearen atzetik igarotzen dira errukirik gabe, goizeroko

ordena berean, letania aldaezin baten pare: San Fernando... Coslada... Santa Eugenia... El Pozo... Litekeena da azken segundo hartan neure buruari ohera itzuli beharko nukeela esatea. Egunsenti hartako argiak garaiz itzali izana desio dut orduan.

Hogei minutu igarotzen dira, non ez naizen existitzen neure buruarentzat, baina denbora horretan zehar bai existitu naizela besteentzat. Heriotzak, uneoro gertatzen denaren jakitun, kaosean bilatzen nau, autobusean eta geltokian ikusi bainau, eta badaki tren horretara igo naizela. Baina ez nau topatzen.

Berrito existitzen naizenerako, mundua beste bat da eta nire denbora bitan apurtu da betiko. Ondorena hasi da. Ke zuri trinko bat gogoratzen dut, kotoizko hil-oihal bat bezala ni biltzen. Hartatik ozta-ozta ateratzen naiz, leherketaren

*22. irudia. Antonio Miguel Utrera, M-11ko biktima.*



oihartzuna oraindik belarrietan durundika, odoletan ari direla. Bagoitik irteten naiz, agian ezezagun bihozbera baten eskuak lagunduta, ez dakit, eta geltokirik gabeko geraleku latz horretan nagoela, bidaiak hara eramana, trena zer egoeratan geratu den behatzen dut. Suntsitutako trenak oihuka esaten dit zer gertatu den, eta nik oihu isil baten bidez jakinarazten diot entzuleria somnanbulu bati, entzun ezin nauena, edo entzuten ez dakiena. Han, miopiak handiagotutako distantzia batean (betaurrekoak, non utzi ditut betaurrekoak?), Atocha egunsentiaren kontra agertzen da metalezko dinosauro baten bizkarra bezala. Hotza dut gogoan, bizi izan dudana samingarriena...

Une horretatik aurrera, desagertuen errealitate kuantikoko nabil. Nire gurasoen buruan... bizirik eta hilik nago aldi berean. Ziurgabetasun horrek egun horretako ordu luzeak jango ditu, eta haien bizitzaren gainerakoa baldintzatuko du. Orduan jaiotako traumaren itzala ez da inoiz guztiz barreiatuko.

Paradoxa konpontzen denean, ni bizirik baino hilago nago, eta doi-doi dago nigan ezer beren semea gogorazten dienik. Egunak anestesia posiblerik gabe doaz aurrera, eragindako min handi horren baitan. Ordu luze horietan heriotzak inguratzen nau, egon gabe nago, koma behartuaren egoera amiotiko horretan igerian, eta konortea dutenek nahiago dute lehenago hil izan balira.

Itxura batean saihestezina den amaiera baten ondoren, etorkizuneko horizonte bat agertzen da, ustekabekoa den neurrian poztasunaren guztiz antzekoa dena. *Pronostiko guztien kontra* izango litzateke, agian, izenburu onena kontakizun honentzat. Lehen Ondorenen hiztegiari, gauzak azaltze aldera, hemiplegia eta trauma osteko estresa gehitu zitzaizkion, fisioterapia eta entzumen-galera, akufenok eta ondorioak. Gorputzeko ondorioak eta ikusezinak direnak, giza doilorkeriaren oroipen ezabaezin gisa. Eta amildegia.

Atentatuaren ondotik etorri ziren lehen egunetan (egunehar mintzo naiz, baina urteak dauzkatzat buruan) eta, jarduera gorabehera, tristuraren antzeko hutsune zuri hondogabe bat sentitu nuen egun haietan, ispilura agertzen zen hura ez nintzen ni. Ispiluko hartan neure burua ezagutzea, nire gorputzaren ezker erdia, orain ezberdina eta baldarra, lehen zen bezain nirea zela sentitzea, nire bizitzan Ondorena txertatzeko beharrezko konkista izan zen. Gainditzea ez dela existitzen ulertu nuen, ahanztura niretzat ere ezinezkoa den bezala, baina amore eman nion egokitzapenari, eta haren bazterretan aurkitu nuen irteera, egun batean kanporatua izan nintzen biderako itzulerako bidea.

Ez dut gogoratzen zer unetan hasi nintzen Orainean bizitzen, ezta Oraina sinesgarria den ere, dakidan bakarria da denboraren alde honetan lagun errukior eta bihozberen eskuak ere

badirela, ezein Ondoren baino lehenago ziren bezain errukior eta bihozberak. Badakit Oraineko denbora, oroimenarekin eta memoriarekin bateragarria, dagoen eta geratuko den bakarria dela<sup>10</sup>.

## IRADOKITAKO JARDUERA

Aldez aurretik, irakurle bakoitzak jarduera honi hasiera ematen dion lekukotza irakurri behar izan du. Testu konplexua da, eta, hortaz, agian beharrezkoa da behin baino gehiagotan irakurtzea.

Testua irakurri ostean, bertan zenbat irudi literario dauden jabetuko zinen (metafora, konparazioa...); hala, leherketaren ondoren sortu zen keaz hitz egiteko, honako hau dio: "Ke zuri trinko bat gogoratzen dut, kotoizko hil-oihal bat bezala ni biltzen". Jaso ditzakezu irudi horietako batzuk eta, zure ustez, Antonio Miguel Utrera haien bidez esan nahi duena adierazi?

Idatz itzazu esaldi gutxitan, zeure estilo pertsonalarekin, Antonio Miguel Utrera gazteak jasandako atentatuan zehar eta ondoren bizi izandako sentimenduak.

Biktimei egindako omenaldiak Madrilgo zirkulazio handiko lekuetan egin ziren, hala nola Atochako geltokian. Azkenik, jasotako testu guztiekin erakusketa bat egin daiteke leku garrantzitsu batean, ikastetxeko hezkuntza-komunitate osoaren joan-etorriak ohikoak diren batean.

<sup>10</sup> López Romo, 2018: 273-277.

## 4.2 JARDUERA

### SUSTRAI ERLIJOSOA DUEN FANATISMOA

Terrorismo jihadistak herri musulmanetan nahiz Mendebaldean utzi duen hildako eta zauritu arrastoa oso esanguratsua da dagoeneko. M-11ko atentatuak, Europan eta munduko beste hainbat lekutan gertatutakoak edo Bartzelona eta Cambrilsekoa, bat datoz puntu batean: fanatismo erlijiosoa, biktima errugabeak eta senideak haien galeragatik negar egiten.

### IRADOKITAKO JARDUERA

Honako dokumental hau ikusi:

*El 11-M narrado por las víctimas y sus familiares*, BBC News Mundo: <https://www.youtube.com/watch?v=x-vaX9bGKoW8>

“Ideia-andana” baten bidez gehien hunkitu edo interpelatu zaituzten lekukotzak komentatu. Oso interesgarria izango litzateke M-11ko, Europako beste atentatu batzuk (Niza edo Paris) eta Bartzelonan eta Cambrilseko atentatuak nozitu zituzten biktimen lekukotzen artean puntu komunak aurkitzea.


Bildutako ideiekin, gure gaur egungo gizartearen kultura-aniztasunari buruzko eztabaida bat egitea iradokitzen dizuegu. Gaur egungoa bezalako herritartasun konplexu batean, berdina baina ezberdina, posible al da elkarrekin bizitzea? Nola lagundu kulturarteko elkarbizitza desiragarri bat Espainiako eta Europako gure gizarteetan?

“Los desmemoriados no tienen futuro: cuando a una sociedad se le vacía de las referencias simbólicas de las que ha vivido, queda a la deriva en el presente e inerme ante el futuro”.

*Ernest Bloch*



“... lo que se debe pretender es, por un lado, que las víctimas lleven una vida digna y vean satisfechos sus legítimos derechos como personas agredidas. Por otro lado, es deseable que puedan recordar lo ocurrido de forma que esta memoria se convierta en fuerza para vivir el futuro, que recupere, si la habían perdido, la confianza en la sociedad y en la convivencia, y que participen y disfruten con satisfacción de una sociedad en paz”.

*Xabier Etxeberria*



Nombre: Amamal guised adlas maguender  
Edad: 11 años  
Curso: 5 de primaria.

महात्मा जेमी जेका उच्चो जगतना जे उच्चत वाचनमय  
हस्य मनी अहे जगत मजक कसकस लुप्त  
अह जगती जेकक मनी जे जगत अह अह अहेक  
मजकमय उच्चकनी जेमीक मजक उला  
जेकक उच्चकना उच्चक अहक जे. अह  
मजक उच्च उच्चकमयी.



quiero Decir no hagais eso!!

23. irudia. Madrilgo Gazte Musulmanak elkarteak liburu bat argitaratu zuen haur musulmanek egindako mezu eta marrazkiekin, non beren sentimenduak eta mina adierazten dituzten 2004ko martxaren 11ko atentatuengatik. Argazkia: EFE.

GEHIAGO

JAKITEKO



ONLINE BALIABIDEAK



**EUSKADIKO INDARKERIA  
TERRORISTARI BURUZKO  
ONLINE ARTXIBOA (BAKE  
ESKOLA), AROVITE**

<https://www.arovite.com/es/fondo-bakeaz/escuela-de-paz/>



**M-11 ELKARTEA TERRORISMOAK  
KALTETUTAKOAK**

<http://asociacion11m.org>



**TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
ELKARTEA, AVT (YOUTUBE  
KANALA LEKUKOTZEKIN)**

<https://www.youtube.com/user/avt>



**TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
OROIMEN ZENTROA**

<http://www.memorialvt.com>



**FERNANDO BUESA  
FUNDAZIOAREN  
DOKUMENTU-ZENTROA**

<http://fundacionfernandobuesa.com/web/centro-documental/>



**MIGUEL ÁNGEL BLANCO  
FUNDAZIOA (HEZKUNTZA  
JARDUERAK)**

<http://www.fmiguelangelblanco.es/actividades/educacion/>



**TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
FUNDAZIOA, FVT**

<http://fundacionvt.org/>



**COVITEREN (COLECTIVO DE  
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO)  
IZUAREN MAPA**

<http://mapadelterror.com/>



**BIZITZAREN OROIMENA**


[http://www.rtve.es/  
memoriadevida/](http://www.rtve.es/memoriadevida/)




**TERRORISMOARI BURUZKO  
NAZIOARTEKO BEHATOKIA**

<https://observatorioterrorismo.com>

**AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA**



Arteta, I. eta Galletero, A. (2006):  
*Olvidados*, Adhara, Madril.



Alonso, R., Domínguez, F. eta  
García Rey, M. (2010): *Vidas rotas:  
historia de los hombres, mujeres  
y niños víctimas de ETA*, Espasa,  
Madril.



Fernández Soldevilla, G. (2016):  
*La voluntad del gudari*, Tecnos,  
Madril.




Fernández Soldevilla, G. eta  
Domínguez, F. (edit.) (2018):  
*Pardines, cuando ETA comenzó  
a matar*, Tecnos, Madril.



Gálvez, P., Guiral, A., Mundet, J. eta  
González, F. (2009) *II-M. La novela  
gráfica*. Pilar Manjón-en hitzaurrea.  
Editorial Panini España.







Gómez Moral, A. R. (2013): *Un gesto que hizo sonar el silencio*, Gesto por la Paz, Bilbo.

López Romo, R. (2015): *Informe Foronda: los efectos del terrorismo en la sociedad vasca*, Los Libros de la Catarata, Madril.

López Romo, R. (edit.) (2018): *Memorias del terrorismo en España*, Los Libros de la Catarata, Madril.



Moreno, N. eta Folguera, M. A. (2015): *Testimonios. La voz de las víctimas*, APAVT, Leon.

Pérez Urbano, M. (2019) *Dinos dónde estás y vamos a buscarte*. Ediciones Urano.

Reinares, F. (2014) *¡Matádos! Quién estuvo detrás del 11-M y por qué se atentó en España*. Editorial Galaxia Gutenberg.



Sáez de la Fuente, I. (2017): *Misivas del terror. Análisis ético político de la extorsión de ETA contra el mundo empresarial*, Marcial Pons, Madril.

Ugarte, J. (2018): *La bolsa y la vida. La extorsión y la violencia de ETA contra el mundo empresarial*, La Esfera de los Libros, Madril.

PROPOSAMEN

DIDAKTIKOA



## GAIA

Geografia eta Historia, Batxilergoko 2. maila.

## CURRICULUM OFIZIALAREKIN DUEN LOTURA

Unitate didaktiko honen edukiak 11. (Frankismoaren amaiera: ezegonkortasun politikoa; kanpoko zailtasunak; nazioarteko krisi ekonomikoaren ondorioak) eta 12. (Gobernu konstituzionalak: terrorismoaren arazoa; porrot egindako 1981eko Estatu-kolpea) blokeekin lotuta daude.

Abenduaren 26ko 1105/2014 Errege-Dekretua, zeinaren bidez ezartzen den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren oinarritzko curriculum (BOE, 2015eko urtarrilak 3).

## TEMPORALIZAZIOA

1105/2014 Errege-Dekretuak ezartzen duenaren arabera, "Historiak gizarteak aztertzen ditu denboran zehar, irizpide kronologiko bati jarraiki"; hortaz, unitate hau ikasturteko azken hiruhilekoan zehar garatu beharko da.

Bere garapen osorako 5 saio presta daitezke, baina, irakaslearen irizpidearen arabera, posible da haietako batzuk bakarrik aukeratzea.

## HELBURUAK

Modu orokorrean, "25. Artikulua. Helburuak"en jasotzen dira lortu beharreko helburuak. Dekretuak ezartzen duenez, Batxilergoak herritartasun demokratikoa egikaritzeko gaitasunak garatzen lagunduko die ikasleei, betiere ikuspegi orokor batetik, eta kontzientzia zibiko arduratsua eskuratzen lagunduko die ere, Espainiako Konstituzioaren baloreek nahiz giza eskubideek inspiratutakoa eta gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzan erantzunkidetasuna sustatuko duena.

Helburuak:

- ✓ Espainian jardun duten talde terrorista ezberdinak ezagutu eta identifikatu, eta eragin duten minari buruz gogoeta egin.
- ✓ Espainian jardun duten erakunde terroristen ekintza krudela aztertu, eta beren jatorria, jardunbideak eta jarduera-epeak desberdindu.
- ✓ Estatuaren eta herritarren aldetik izuari eman zaion erantzuna baloratu.
- ✓ Terrorismoko biktimen lekukotzak errespetuz entzun, haien sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzeko eta haien jarrera eredugarria aitortzeko.
- ✓ Historiaren ezagutzatik eta testuinguru sozial, politiko eta kulturaletik abiatuta, Espainian egon den terrorismoari buruzko iritzi kritiko bat eraiki.
- ✓ Inoiz entzun ez diren eta egoera horren biktima izan direnen lekukotzen inguruan sentsibilizatu.

## EDUKIAK

Jada aipatu dugu kontuan hartu beharreko edukiak, funtsean, bi direla: alde batetik, Frankismoaren amaiera: ezegonkortasun politikoa; kanpoko zailtasunak; nazioarteko krisi ekonomikoaren ondorioak eta, bestetik, gobernu konstituzionalak: terrorismoaren arazoa; porrot egindako 1981eko Estatu-kolpea. Modu zehatzagoan landuko dira honako hauek:

Zer da terrorismoa?

Frankismoan zehar izandako ekintza terroristak.

Trantsizio demokratikoan zehar izandako ekintza terroristak.

Demokrazian zehar izandako ekintza terroristak.

Indarkeria eta Giza Eskubideak.

Terrorismoaren biktimen diskurtsoaren analisia.

## GAKO-GAITASUNAK

Unitate honekin garatuko diren gako-gaitasunak honako hauek dira:

Komunikazio linguistikoan gaitasuna, jarduerak burutzeko ezinbestekoa izango baita hala irakurketa ulerkorra nola testuak sortzeko gaitasuna, baita ahozko adierazmolde egoki bat ere.

Eskuduntza digitala, beste jarduera batzuk osatzeko beharrezkoa izango baita informazio- eta komunikazio-bitarteko teknologikoak erabiltzea.

Eskuduntza sozial eta zibikoa, ikasleak biktimaren lekuan jarri beharko baitu elkarbizitza baketsuaren garrantzia ulertzeko.

## BALIABIDEAK

Unitate didaktiko hau garatzeko ezinbestekoa izango da proiektzio-kanoi bat eta bozgorailuak dituen gela bat edukitzea. Testuekin egin beharreko lanerako, gomendagarria da fotokopiak ematea, nahiz eta testuak proiektatzea, haiek ozenki irakurtzea eta proiektatutako testuarekin lan egitea aukera daitekeen. Ezaugarri horiek dituen gelarik ez badago, saioak informatikako gelan egitea gomendatzen dugu, edo Eskola 2.0 tankerako ordenagailu eramangarriak erabiltzea, zentroak halakorik baldin badu behintzat.

## IKASKETA ESTANDARRAK

Abenduak 26ko 1105/2014 Errege-dekretuan ezarritakoaren arabera, unitate didaktiko honi dagokion ikasketa estandarra, 8. bloketik ateratakoa (Gaur egungo mundua XX. eta XXI. mendeen artean), honako hau da:

3.4.- Aztertu mehatxu terroristak Espainiaren normalizazio demokratikoan izan duen eragina, deskriba ezazu trantsizio demokratikotik gaur arte jardun duten erakunde terrorista ezberdinen (ETA, GRAPO, eta abar) genesisia eta bilakaera, eta gogoeta egin arestian aipatutakoekin harremana duten honako gai hauei buruz: mehatxatutako herritarrak, biktimen elkartzemugimenduak, bitartekaritza gatazketan eta abar.

Ikasketa estandar hori hainbat adierazletan banatuko dugu, edukien banaketaren arabera, eta, era berean, errubrika sinple batean txertatua, ebaluazioa errazagoa egiteko.

	1	2	3
<b>1 Zer da terrorismoa?</b>	Terrorismoa definitzen du, baina ez daki haren ondorioak aztertzen.	Terrorismoaren arazoak dituen ondorioak modu egokian azaltzen ditu.	Pentsamendu kritikotik abiatuta, fenomeno terroristaren ulermen maila handia eskuratu du, eta ondorio zuzenak ateratzen ditu.
<b>2 Frankismoan zehar izandako ekintza terroristak</b>	Badaki frankismoan zehar terrorismoa egon zela.	Garai frankistako zenbait ekintza terrorista identifikatzen ditu.	Pentsamendu kritikotik abiatuta, modu osoan erlazionatzen ditu bai erakundeak bai frankismoan burutu zituzten atentatuak.
<b>3 Trantsizio demokratikoan zehar izandako ekintza terroristak</b>	Badaki trantsizioan zehar terrorismoa egon zela.	Trantsizio demokratikoko garaiko zenbait ekintza terrorista identifikatzen ditu.	Pentsamendu kritikotik abiatuta, modu osoan erlazionatzen ditu bai erakundeak bai trantsizioan burutu zituzten atentatuak.
<b>4 Demokrazian zehar izandako ekintza terroristak</b>	Badaki demokrazian zehar terrorismoa egon zela.	Demokrazia garaiko zenbait ekintza terrorista identifikatzen ditu.	Pentsamendu kritikotik abiatuta, modu osoan erlazionatzen ditu bai erakundeak bai demokrazian burutu zituzten atentatuak.

## ORIENTAZIO METODOLOGIKOAK

Planteatutako helburuak lortzeko, ahal den neurrian, ikasleen zeregin aktiboa gomendatzen da, terrorismoari eta gertakari garrantzitsuenetako batzuei buruz ikertzea, aztertzea eta eztabaidatzea. Bost oinarrizko lerro nabarmendu nahi ditugu proposamen honen alderdi metodologikoekin:

- ✓ Trataturako gaiaren ezagutza.
- ✓ Terrorismoak gizarte mailan duen eraginaren analisi kritikoa.
- ✓ Bakoitzak hartzen duen jarrerari buruzko gogoeta.
- ✓ Indarkeria eta gatazka sor daitezkeen hainbat egoeratan esku hartzeari buruzko erabakiak hartzea.

Lau ardatz horiek egituratzen dituzte irakaskuntza-ekintza ildoak, eta, horiekin, gure testuinguruan indarkeria- eta terrorismo-egoerekiko pentsamendu gogoetatsu eta kritikoa sortu nahi da. Beste Unitate Didaktiko batzuetan bezala, gai bakoitzari buruzko egitura metodologiko bat erabiliko dugu, bost ataletan banatua, Ikerketa bidezko Ikasketaren edo Inquire-based Learning (Bruce, 2000) planteamenduetatik egokitua. Trataturako edukiari buruzko saioek: "Terrorismoa Espainian", egitura honi jarraituko diote:


**1. pausoa. GALDETU.** Fase hau galdera baten edo batzuen bidez eratzen da, lana gaiaren bidez gidatzen dutenak. Trataturako gaiari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatu nahi du. Eztabaidaren ondoren, irakasleak gaien azalpen teorikoa egingo du, ordubeteko eskola baten iraupena izan dezakeena.

**2. pausoa. IKERTU.** Une honetan, ikasleei baliabide sail bat (irakurketak, terrorismoaren gaiari buruzko aurkezpenak) eskaintzen zaie, gomendatuta datozenak eta aurreko fasean proposaturako galderak ulertzen eta sakontzen lagunduko dietenak. Adibidez, gertaeren testuinguru historikoa ezagutzea.

**3. pausoa. SORTU.** Une honetan, aurreko fasean landutako edukiak aplikatzeko proposamen praktikoa bat egitea planteatzen zaie ikasleei. Unitate Didaktikoan eredutzat hartu diren testigantzetatik abiatuta izan daiteke. Egin beharreko dokumentu motari buruzko adierazle multzo bat ezar daiteke, baita lanketa baldintzak nolakoak diren ere.

**4. pausoa. EZTABAIDATU.** Ondoren, gainerako ikaskideek sortutako proposamenak berrikusiko dira, eta kritika eraikitzaile bat sortuko da, hirukote edo lan-talde bakoitzari hobekuntza bat egiteko aukera emango diona.

**5. pausoa. GOGOETA EGIN.** Talde bakoitzak hausnarketa-prozesu bati aurre egin beharko dio landutako gaiaren inguruan, eta erantzun sendoak eman beharko dizkie gaiaren hasieran planteatutako galderari. Era berean, eskolen bilakaeran zehar agertzen joan diren galdera berriak sortu beharko dituzte.



### EBALUAZIORAKO PROZEDURAK ETA TRESNAK

Testuei, bideoari eta interneteko ikerketari buruzko jarduerak beren koadernoetan egin beharko dituzte ikasleek. Lau saioak egin bitartean ezinbestekoa izango da gelako ikasle guztien parte-hartzea. Irakasleak ikaslearen koadernoan ebaluatu beharko ditu jarduerak ikasketa estandarretan finkatutako errubriken arabera. Gainera, idatziz jaso beharko ditu hala ikasle bakoitzaren esku-hartzeak nola esku-hartze horiek uneoro landutako gaien arabera duten egokitasuna.

Ebaluaziorako zenbakizko transposizio bat egin behar izatetik dator kuantifikazioa, baina ikasleek honako ikasketa hauek berrikus ditzaten azpimarratuko dugu: a) Unitate Didaktiko honetan aukeratutako eduki-blokeen eduki historikoa (ekintza terroristak frankismoan, trantsizioan eta demokrazian zehar) eta b) azterketa honek eman dizkien historia-estrategietatik abiatuta, garatzeko gai izan diren diskurtso kritikoaren edukiori buruzkoa.

Kuantifikazioari dagokionez, errubriken zenbakizko balioa honako hau izango da:

	1	2	3
1	3	5	6
2	3	5	6
3	3	5	6
4	3	5	6

Ikasle bakoitzak lortzen duen errubrikaren arabera, adierazitako zenbakia esleituko zaio. Lanak egiten ez dituenak eta errubrikaren gutxienekoa lortzen ez duenak, 1a jasoko duela ulertuko dugu. Errubrikeri balio guztiak esleitu ostean, batuketari ekingo zaio. "Gainditua" kalifikazioa 12 eta 24ren artean dago, eta gehieneko nota 24koa izango da. 10en araberako kalifikazioa lortzeko, eskuratutako zenbakia 2,4 zenbakiarekin zatituko dugu.

ESPAINIAREN HISTORIRAKO  
UNITATE DIDAKTIKOA  
**BATXILERGOKO 2. MAILA**  
**IRAKASLEENTZAKO LIBURUXKA**

